



ARGIA

Langileen elkartasunak sistema kolapsa dezake

ZAMAKETARIEN GREBA INGALATERRAN

12-15. orriak



**"Lodifobia gizarteko
diskriminazio
modu bat da"**

16 | MAGDALENA PIÑEYRO



**Drogak legeztatu,
ingurumena
zaintzeko?**

26 | GIZARTEA



**Erromoko
Nagusien Etxearen
aldeko borroka**

32 | GIZARTEA



Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko
Mbolo Moya Doole
elkarteari.

Prezioa **32,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | DAVID BOU
- 22 | TERE MALDONADO
- 23 | RUBEN SÁNCHEZ
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | NEREA IBARZABAL

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
IDOIA TAPIA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: PA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



HIRUKA

32 | ERROMOKO ZAHARREN ETXEA BORROKAN

Garazi Basterretxeak landutako erreportajeak kontatu du zertan den udalak Kultur Etxera desbideratu nahi duen Ibar Nagusien Etxeko kideen jarduna. Zaharrek beren aisialdia eta harremanak burujabetzaz kudeatzen jarraitu nahi dute.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | FELIXSTOWEKO ZAMAKETARIAK

Munduko merkataritza kolapsatu eta Olentzeroren oparirik gabe utz zaitzakete

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | MAGDALENA PIÑEYRO

Ardura indibidualetik atera behar dugu, eta lodifobia arlo kolektiboan kokatu

Danele Sarriugarte

26 | INGURUMENA

Drogak legeztatu ingurumena zaintzeko?

Axier Lopez

29 | INGURUMENA

Drogak legalizatzeko ordua iritsi da?

Sylvia Kay

36 | GIZARTEA | XABIER MONREAL

“Zahartuta dagoen gizartean bizi gara, baina fokua ez da adinekoengan jartzen”

Leire Artola

46 | ZINEMALDIA

Ametsa eta eldarnioa

Peru Iparragirre

47 | ZINEMALDIA

Arnasarik gabe

Ixone Santamaria

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Ezaguirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

“Tradizioa” moztu

2022. urtean 22 urteko emakume bat hil da espazio publikoan zapia “gaizki” jarrita eraman eta ilea agerian uzteagatik. Atxilotetek, are gutxiago hilketek, ez dute inongo loturarik kulturarekin edo tradizioarekin, hijaba batzuek hala ulertzen badute ere. Teheranen gertatutakoa boterearekin, agintearekin eta errepresioarekin lotuta dago. Eta horregatik ere Mendebaldeko hedabide eta politikariek hauspotu dute kasu hau, eta ez herrialde “lagunetan” gertatutako beste batzuk, hau bezain larriak direnak. Edonola ere, Bilboko Maryam Fathi errefuxiatu kurduak dioen gisan, “Iran estatu islamiko erradikala eta misoginoa da. Han emakumea ez da gizakia. Kartzela handia da emakumeontzat, are gehiago kurdua bazara”. Irango Poliziak Mahsa Amini gazte kurdua hil ostean, protestak barreiatu dira munduko txoko askotara, emakumeek beloa erretzea eta beren ilea moztea ikur hartuta. Irudian: Protesta Istanbullen, Irango enbaxadaren parean.

📷 YASIN AKGÜL / AFP 🗨️ AXIER LOPEZ





Parot eta Esnal, baldintzapean aske

ERREDAKZIOA

32 urtez espetxean izan diren bi euskal presoak askatzeko eskaera onartu du Parisko Dei Auzitegiak. Bake Bideak prentsaurrekoan eman ditu ebazpenaren inguruko xehetasunak eta balorazioa: "Etap bat gainditu dugu".

Parisko Dei Auzitegiak Ion Parot eta Jakes Esnal euskal presoak baldintzapean libre uzteko defentsaren eskaera onartu duela jakinarazi dute Bakegileek.

32 urte daramatzate preso biek, 71 urtetik gora dituzte, eta defentsako abokatuek haien askatasuna hainbat aldiz eskatu izan duten arren, fiskaltzak behin eta berriz oztopatu du hori. Uztailean zuten auzitegi aurrean zita, baina prokuadoreak helegitea jarri ondoren irailaren 22ra arte atzeratu zen erabakia.

Esnalen eta Paroten askatasuna eskatzeko makina bat mobilizazio eta protesta antolatu izan dituzte herri mugimenduko eragileek azkenaldian, uztailaren 23an egindako blokeo eguna kasu.

"HONEK BIDEA ERRAZTU BEHAR DU"

Bake Bideen zaintza taldeak prentsaurreko batean eman du Parisko Dei Auzitegiaren erabakiaren inguruko bere

balorazioa: "Hainbeste itxoraten genuen erabakia iritsi zaigu. Egungo egoera kontutan hartzen duen erabaki judizial hori txalotzen dugu. Eskertzekoa da, ere, gizarte zibilak urtez urte determinazio handiz eramandako lana eta abokatuen determinazioa", azaldu dute.

Esnalen eta Paroten askatasuna eskatzeko makina bat mobilizazio eta protesta antolatu izan dituzte herri mugimenduko eragileek azkenaldian

Bakegileek 2011ko Aieteko konferentziaz gaur egunera arte emandako urratsen errepasoa egin dute eta azaldu dute Parot eta Esnal libre geratzearekin "etapa bat gainditu" dela, baina ez dela amaitu: "Gure lana bururaino eraman behar dugu", adierazi dute.

Hala, Frantziako eta Espainiako Estatuak interpelatu dituzte, "bake prozesuan aktiboki inplikatu daitezen". ●

Neofaxista italiarrak agintera itzuliko dira

XUBAN ZUBIRIA

Italiako Anaien alderdi neofaxistaren garaipenak Giorgia Meloni ultraeskuindarra bilaka dezake datozen asteetan Italiako lehen ministro. Eskuineko blokea gailendu da herrialdeko leku gehienetan. Botoen %26,5 eskuratu du lider ultraeskuindarrak, atzetik zentro ezkerreko hautagaia (PD) Enrico Letta bozken %19,4 eskuratuta eta hirugarren postuan 5 Izar Mugimenduko Giuseppe Conte lehen ministro ohia bozken %14,8 arekin. Meloniren hurrengo lana Italiako presidente Giuseppe Mattarellakin gobernua osatzeko baldintzak adostea izango da.

Koalizioak hobesten dituen sistema elektorala da Italiakoa. Eskuinak hasieratik adostu zuen posible zuen esparru elektoral guztietan koalizioan aurkezteko asmoa. Aulkien %37an edo, hobeki esanda, herrialdeko 147 sekziotan hautagai bakararra aukeratzen den esparruetan ezinbesteko bihurtzen da koalizioan aurkezteko, bozkak hautagai baten inguruan biltzeko. Hala egin du eskuinak, bozka andana batuz; ezkerrak, ordea, batasuneko hautagaiak aurkezteko ezina lehen momentutik izan du. Faktore hau ezinbestekoa da Meloniren, eta orokorrean eskuineko blokearen, garaipena ulertzeko. Ezkerrari zer pentsatu eman beharko lioke, desadostasun hauek baitira Meloniri Chigiko jauregira iristeko bidea erraztu diotenak.

Musolinik Erromara egin zueneko martxa faxistak mendeurrena beteko duen urte berean neofaxista italiarrak herrialdearen agintera itzuliko dira. Oraingoan Silvio Berlusconiaren babesa izango duela dirudi. Ikusteke dago zer nolako pisua izango duten Berlusconi edo Salviniaren Legak gobernu posible horretan. Garai txarrak datoz herrialdeko gutxiengoentzat. Jakin badakigulako herrialdearen arazo estrukturalen aurrean erantzuleak non bilatuko dituen etorkizuneko gobernu horrek. Parlamentuan ez bada, bertatik kanpo antolatu beharko du Italiako gizarteak, erauntzi erreakzionarioari aurre egiteko. ●



BAKE BIDEA

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Mugituz



UXUE APAOLAZA LARREA

Dotore jantzita zegoen, autobus geltokian eserita, eskuak makuluan jarrita, ile urdina bilduta, hutsari begira. Han zegoen iritsi nintzenean. Ez zion ordulariari behin ere begiratu. Emeki altxatu zen, ordubete geroago (lehen ordu erdi litzateke), autobusa iritsi zenean, eta gainerakoon ezinegonetik urrun, presarik gabe eman zituen pausoak eskailerarantz, eserlekurarantz. Tira, asteburua zen, buelta trenez egin behar genuen, hainbesteko suspenserik gabeko ordutegidun batean.

Hurrengo batean, etxera itzuli behar genuela, hango geltokian pilatu ginen herriko zenbait pertsona. “Noiz pasako da autobusa?”. Interneten laurden gutxitan dio, markesinako paperak puntuan, baina gure begiz ikusi dugu hoge gutxitan bat nola pasa den. Tira, asteburua da oraingoan ere. Beste behin, ordea, ilunduta harrapatu gintuen jolasak, ordubete generaman erdibideko geltoki batean, eta ez zuen handik ezer pasako zen itxurarik, markesinako paperak kontrakoa esan arren. Goazen oinez behatzak moretzen hasi aurretik, ezin dut umea hemen Sanitas aurrean izozten utzi. Tira, berriro, asteburua da, eta umearentzat abentura bat izan da errepide ertzetik ilunpean ibiltzea.

Ezin dugu edonora oinez iritsi. Ezin dugu denok bizikletaz ibili. Distantzia batzuk ezin dira patinetaz egin. Mugikortasunerako eskubidea mugiarazten gaituztenek greba egiten dutenean baino ez da arazo, dirudienek. Autobusetako murrizketek egiten diren momentuan sortzen dute zuzendariari gutunen bat, tokiko egunkari batean, hitz ozenen bat udaleko plenoan. Ziur, defizitario hitza entzungo den batean. Defizitarioago murrizketaz murrizketa.

“Kotxea behar dugu” izan zen bidelagun nuenaren ondorioa umeari eskutik helduta. “Bai”, erantzun nion nik. Ez da elektrikoa izango. Emakume dotorea ez da herritik irtengo, markesinan geratuko da, defizitario. ●



Motzean

Donibane Garaziko sarreretako batean, Arnegitik datorren errepidean, euskarazko kartela frantsesezkoaren gainean jarri du Herribiltza taldeak, “euskararen bizirik irautearen aldeko auzolanari” segida emanez.

Arabako metalgintzako grebak bertan behera utzi dituzte, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek patronalarekin aurreakordioa lortuta. ELAK ez du proposamena onartu.

Alemaniko gas hornitzaileak handiena nazionalizatuko du gobernuak. 8.500 milioi euroko galera pilatu du enpresa pribatuak.

BPGa kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikora bideratzen duen finantzazioa Europa, Espainia eta Frantziako batez bestekoa baino txikiagoa da, dio ELAK.

Osasunbideko 350 langile kaleratu dituzte Nafarroako Gobernuak eta Osasun Departamentuak, LAB sindikatuak salatu duenez.

Errusiako presidentek “aberria babesteko” 300.000 erreserbista mobilizatzea deitu ostean, protestak egin dituzte herrialdean. Atxilotu ugari izan dira.

Leitzan beste eraso faxista bat (denbora gutxian hirugarrena) gertatu dela salatu du Udalak, “oraingoa ezaugarri arrazista eta ikur naziekin”.

EKONOMIA

Dirulaguntzen politikaz



AINHOA ETXAIDE
AMORROTU

Saltoki handien jabe diren multinazionalak eta ekoizle txikiak begi onez ikusten ez zutelako agertu zen Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako sailburua oinarritzko elikagaien prezioa mugatzearen kontra. Ez zuen gezurrik esan, baina auzi honek bi aldeek jarrera konpartitzen zutela aditzera ematea iruzur hutsa izan zen. Multinazionalak argi utzi zuten ez zutela mugarik onartuko; ekoizleek berehala ikusi zuten neurriaren kostua euren bizkar gainean.

Batzuk boteretik hitz egin zuten, besteek biziraupenaren premiata. Epe luzera begiratzeko aukerarik gabe uzten zaituen zoko horretatik hain zuzen ere. Multinazionalak mugak jartzeaz gain, ekoizpena merkaturatzeko bide zuzenak eta gertukoak ziurtatzeaz edota kontsumo ereduak aldatzeaz hitz egitea behar dute nekazariak eta abeltzainak, ELBK bere urtemugan oso garbi esan zuen moduan. Gobernuak, dirulaguntzen kopurua eztabaidara lotu dituzte ordea.

Lehortek, uholdeek edota suteek eragindako kalteei aurre egiteko dirulaguntzak; kotxea erabiltzen jarraitze-laguntzak; kontsumoa suspertzeko bonoak... Dirulaguntzen politikak bizirauteko borrokatzen duenari arnasa ematen badio ere, finean, boterea duenari laguntzen dion politika da. Ziklo amaiera batean gaudela erakusten duten egoera hauek guztiak erroetara jotzea eta oinarri sendoak izan behar dituen bidaietan sartzea eskatzen dute. Eta hori da, hain zuzen ere, dirulaguntzen politika hauekin lapurtzen ari diren eskubidea: asistentzialak diren neurriekin ordezkatzeko ari direlako trantsizioarako zer nolako politika publikoak behar diren eta hauek nola finantzatu behar diren erabaki ahal izateko eztabaida. ●

ANALISIA



Fiskalitate desberdina

URKO APAOLAZA AVILA

Iñigo Urkullu EAeko lehendakariak hainbat neurri iragarri ditu Eusko Legebiltzarreko Politika Orokorreko Osoko Bilkuran, egungo krisi egoerari aurre egiteko. Esaterako, gizarte larrialdietarako laguntzak %10 handitzea –inflazioa beste horrenbeste igo delako–, elikagai-bonua abian jartzea merkataritza txikia konpentsatzeko, edo energia berriztagarriak sustatzeko laguntza-programa indartzea. *Hitzartuz* deituriko programaren bidez 400 milioi euro bideratzea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak horretarako. Diru asko da, noski, baina ez nahikoa. AHTren Bilboko (495 milioi) eta Gasteizko (555 milioi) geltokiek hori baino gehiago kostako dute, adibide bat jartzearen.

Ohiko errezetarekin datorkigu lehendakaria. Ainhoa Etxaidek ondoko zutabearen esan bezala, konpentsatorioak eta asistentzialak diren laguntzak baino ez ditu eskaintzen, ereduak sakoneko aldaketa bat ekarriko luketen neurriak hartu baino. Esaterako, fiskalitatean badauka zer eginga. Espainiako Gobernuak, Europako Batzordeak, baita Nazioarteko Diru Funtse ere, aztertzen ari dira energiaren sektoreko enpresak eta fortuna handiak gehiago zergapetzea. Aldiz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez dira “aberatsen arrantzan sartuko”, Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileak argi utzi duenez. Lurralde horietan Ondare Zergaren bidez ogasunek apenas biltzen dituzte 150 milioi euro.

Legebiltzarrean iragarritako zortzi neurrien artean bakarrik du zerikusia fiskalitatearekin: denbora gutxian hirugarren aldiz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) deflaktatuko dute urtarilaren 1etik aurrera, oraingoan %5,5. Irabazitakoari ehuneko hori murriztuz, zergaduna aurreko tartera pasatzen da eta tasa txikiagoa ordaintzen du. Inflazioaren gorakada leuntzeko modu bat da. Baina deflaktaturikoa inflazioaren erdia ere ez da. Gainera, Jon Bernat Zubiri ekonomialariak *Hordago*-n gogorarazi zuen moduan, askok ez dute errenta aitortpena egiteko adina ere irabazten, eta errenta baxu eta erdi-mailakoek apenas nabaritu dute bitartean, diru gehien aitortzen dutenei egingo die mesede. Desberdintasun sozialak areagotuko dituela, alegia.

Espainiako Estatuan Alberto Nuñez Feijó PPko burua izan da deflaktazioaren alde sutsuen hitz egin duena, zergak kentzeko politikaren barruan. Pedro Sánchezen gobernuak, baina, ezetz esan du. Horregatik, harrigarria da orain Idoia Mendia (PSE) halako neurri bat onartzen ikustea. Edo, agian, ELAko Mixel Lakuntzak Euskadi Irratian salatu gisan, PP, EB eta NDF baino “eskuinerago” ote dago Eusko Jaurlaritza? ●

Udaltzaingoeak euskarazko B2 mailarik behar ez dutela dioen epaiak hautsak harrotu ditu

ERREDAKZIOA

Ana Maria Martinez epailearen ebazpenaren arabera, ez da ziurtatu behar euskarazko B2 maila izatea Udaltzaingorako deialdi publikoan izena emateko.

2021ean du jatorria aferak. Orduko hartan, Irungo udaltzain izateko oposizioetan eskatzen zen euskara jakitea, baina euskara ez dakitenenganako diskriminatzailea dela iritzita, deialdia baliogabetu zuen EAeko Auzitegi Nagusiak. Euskalgintzaren eta eragile ugariaren kritikak jaso zituen ebazpenak, erabaki horrekin diskriminatzen zirenak Irungo herritar euskaldunak zirela ulertuta. Horren ostean, Polizia Akademiak B2 profilaren eskakizuna gehitu zuen EAEn udaltzain izateko lan poltsan, eta orain, UGTren salaketa ontzat emanenez, Gasteizko epaitegi batek dio polizia izateko ez dela halakorik behar.

Paul Bilbao:

"Auzitegiak hizkuntza-politika egiten ari dira, euskaldunon eskubideen aurkako ofentsibari jarraitzen diote"

NOR DA EPAILEA?

Ana Maria Martinez epaileak esan du berriro onartu beharko direla baldintza hori ez betetzeagatik zerrendatik kanpo geratu ziren hautagaiak. Hain zuzen, epaile hori izan zen Laudioko Udalari agindu ziona bitarteko funtzionario bat berriro hartzeko (lanpostua galdu zuen euskarako eskakizuna ez izateagatik), argudiatuta udalak ez zuela kontuan hartu "euskara munduko bosgarren hizkuntzarik zailena" dela.

Oraingo kasuan UGT sindikatuak ezarri zuen helegitea, argudiatuz 2021eko deialdi publikoan "diskriminatu" egiten zitzutela B2 maila egiaztatu ez zuten Udaltzaingorako hautagaiak. Sindikatuak defendatu zuen pertsona horiek gai direla "zenbait lanpostu" betetzeko, nahiz eta onartu zuten ezin dietela herritarrei euskarazko zerbitzua eman.

HELEGITEA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren hitzetan, hizkuntza maila eskatzea "funtsezkoa da euskal Poliziak gizartearekin harremana izateko" eta "herritarrei zerbitzu hobea emateko". Hala, helegitea iragarri du epaiaren aurka.

Ugariak izan dira epaiak jasotako kritikak. Euskalgintzaren Kontseiluak gogor salatu du ebazpena, eta ohartarazi dute herritarren eskubideen urraketa dela. Paul Bilbao idazkari nagusiak auzitegien jarduna kritikatu du, eta

herritarrei dei egin die aurre egitera: "Azken hilabeteotan esaten ari gara auzitegiak hizkuntza-politika egiten ari direla, euskaldunon eskubideen aurkako ofentsibari jarraitzen diotela. Alta, gaurko ebazpena kate horretako beste kate-begia besterik ez da. Horrexegatik, honi guztiari modu bateratuan erantzun behar zaiola uste dugu".

ELA sindikatuak ere salatu du "euskaraz lan egiteko eta herritarrak euskaraz artatuak izateko eskubidea" urratzen duela ebazpenak. Halako ebazpenei aurre egiteko, oposizioak eta instituzioz instituzioz lan poltsak proposatu ditu ELAk.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak oharra egin du: epaiak arriskua dakar eskubide urraketak betikotzeko, herritarren eskubideen eta eskaintzen den zerbitzuaren kalterako.

Gogoratu behar dugu ez dela kasu bakana Udaltzaingoaren hizkuntza eskakizunekin auzia dagoena. ●



GASTEIZ HOY

TEKNOLOGIA

Inork ez du ezer banaka sortzen



DIANA FRANCO

Askotan sortze prozesuan bakardadea beharrezkoa da; lasai pentsatzeko astia norbere buruan dauden ideiak antolatu eta egiteko denbora bilatzen dugu. Gai hau, bakardadearena, beti izan da niretzat buruhauste bat, oso gogoko dut bakardadean egotea batzuetan, baina gizartean bakartiak ez gara oso ospetsuak. Beharbada, bi hitz nahasi ditugulako: bakardadea eta banakakotasuna. Zer edo zer lasai egitea, nire arreta jartzea egiten nagoen horretan asko disfrutatzen dut, bakardadea disfrutatzen dut. Baina momentu honetan testu hau bakarrik egiten banago ere, testu hau ez da banakako lana, testu hau Argiako lantaldeak sustatzen du, nire amak eta bikotekideak haurra zaintzeak sustatzen du, pertsona askorengandik ikasi dudana ezagutza ekartzen du, LibreOffice testu editoreak sustatzen du, LibreOfficeko euskaraketa egin dutenek sustatzen dute... Bakarrik nago, baina ez dut banaka ezer sortzen.

Dugun gizartean, ordea, bi hitz hauek asko nahasten ditugu, bakardade grina seinalatuz eta banakakotasuna goraipatuz, banakakotasunari errentagarritasun ekonomikoa esleitzeko harreman komertzial ereduak sortu ditugulako lizentzia eta patenteen bidez. Eta sorkuntza gizarte dinamikatik banatu nahi dutenek urraketak sortzen dituzte errentagarritasunaren bidean ibiltzeko.

Ikuspuntu feministak berriro goratu digu inork ez duela ezer banaka sortzen; norbaitek zaindu zintuen txikitan, norbaitek elikatu, norbaitek hezi, norbait arduratu zen jantzita eta osasuntsu egon zintezan, eta egiten dituzun gauzetan berdin: gizakiak garen heinean ez gara inoiz jakintza isolaturiko izakiak izango. Noizbait, beharbada, ezagutza gizartetik banantzearen -isolatzearen- zentzugabekeria pentsatuko dugu. ●

NAZIOARTEA



Homosexualak, Eliza Katolikoaren jostailu

Flandriako zenbait gotzainek onartu du dokumentu batean elizetan bi pertsona homosexualek "otoitz une bat" egitea, "Jainkoarekiko eta besteekiko konpromisoa" adierazi eta komunitateak ere otoitz egin dezan "Jainkoaren graziak haien alde egin dezan". Sexu bereko bikoteak aintzat hartzen dituen Eliza Katolikoaren lehen agiritzat jo du askok. Hori bai, gotzainek berehala argi utzi dute ezin dela inola ere alderatu heterosexualekiko duten jarrerarekin: "Ez da bikote gayen bedeinkazioa, ezkontzeko zeremonia baten antzik ez duen otoitza da", adierazi du Tommy Scholtesek, Belgikako gotzainen bozeramaile frankofonoak.

Dena dela, Vatikanoren araudia- rekiko bestelako jarrera da. Iazko maiatzean argitaratu zuten Fedearen Doktrinako araudian apaiz katolikoei debekatu zieten sexu bereko bikoteak bedeinkatzea, "Elizak ezin baitu bekatu bat bedeinkatu". Hori dio Eliza Katoliko Apostoliko eta Erromatar horrek, pederastia eta sexu-abusu kasu gehien (gehienak gizonen artekoak) egin dituen munduko talde antolatutik handiena bihurtu denak, duela oso gutxira arte erabateko zigorgabetasunaz egiten zuenak.

Bere sotana eta super botereak Alcantera eraman aurretik, Gipuzkoako katolikoen ordezkari goren José Ignacio Munillak publikoki zioen berak bi pertsona homosexual "sendatu zituela". "Gaixotasun" hori orain Flandrian

bedeinkatu egiten dute, eta Kuban lege guztietatik kanpo nahi dute.

Izan ere, kubatarrek igandean homosexualen ezkontza edo genero bereko bikoteek adoptatzea baimenduko duen legeaz bozkatu dute -bai, oraindik ere eskubideak bozkutzen dira-. Erreferendum loteslea egin dute Familien gaineko Kode berriaren inguruan eta hauteslegoaren %69k hartu du parte. Oraingoz ez dago emaitza ofizialik, baina legearen aurka gogorre egin dutenak Eliza Katolikoaren ordezkariak izan dira. Kariben ere Eliza balore atzerakoien gortorleku historikoa da, eta gure inguruan neofaxistek darabiltzaten terminoak bere egiten dute. Adibidez, Kubako gotzainek irailean argitaratu duten komunikatuan "genero ideologiaz" mintzo dira, familientzat zeinen arriskutsua den azpimarratuz. Aho bilorik gabe adierazi dute "naturala" dena gizonaren eta emakumearen arteko ezkontza dela, "Sortzailearen jatorrizko plana hori baita".

Tokian tokiko jarrerak jarrera, lehen bezala orain ere, bere burua moldatzen jarraitzen du sistema heteropatriarkalek kanpo dagoen pertsona oro sistematikoki baztertu duen multinazionalik handienak. Negozioak jarraitu egin behar du, eta "jarrera sodomitak" izateagatik lehen bizirik erretzen zituztenak orain eliza gutxi batzuetan pixka bat bedeinkatu behar izatea, zer da ba? ●



Eraldatuta dator Kilometroak jaia

 ERREDAKZIOA

IBARRA / Ohiko guneak goitik behera aldatu ditu Kilometroak jaiaren aurtengo edizioak, hitzaldiak ere antolatu dituzte urriaren 2 honetarako eta ezusteko bat baino gehiago prestatu dute. “Jai parte-hartzaileagoa” izango da, “aldarrikapenari toki handiagoa emango diona”.

Urriaren 2an, Ibarra ospatuko da aurtengo Kilometroak, *Irribarra* lelopean eta herriko ikastetxe bakarra, Uzturpe ikastola, gidari duela. 1970eko hamarkadan sortua, zailtasunez betetako bidea izan zela azpimarratu du ikastetxeko zuzendariak, jaiaren aurkezpenean. Gaur egungo zailtasunak ere kontatu ditu: ikastolako eraikina proiektu pedagogikora egokitzeko eraberritze lanetan, zimentuak ukitu ziren, istripuz, eta barrakoietara aldatu behar izan dira ikasle ugari, urte eta erdiz. Kanpo espazioa egin gabe gelditu zen eta “tamalez, patioa ez da jolastu, esperimentatu edo kirola egiteko toki aproposena, arriskutsua ere bada”. Kilometroak jaiaren dirua berau egokitzeko erabili nahi da.

Jai eredu berria ere izan dute aipagai aurkezpenean. “Jai parte-hartzaileagoa, aldarrikapenari toki handiago emango diona, tamainaz gureagoa” izango da, besteak beste, Kilometroak Kultur Elkartetik azaldu dutenez.

EREDU BERRIA

“Aurtengo aldaketa nagusietako bat, kultura kontsumitzeaz gain, hura esperimentatzea, bizitzea, parte-hartzea” izango da, antolatzaileen hitzetan. Eta islatuko da prestatu

dituzten lau guneetan –aurten guneak ez dira tematikoki edo adinka bereiziko–: “Sormena” gunean, esaterako, tailer bidez eskulanetan edota bertsogintzan aritzeko aukera izango da, baita zirkoan, dantzan eta artisautzan sakontzeko ere. “Haurren hiria” gunean, Francesco Tonucci pedagogoarenekin filosofiarri jarraiki, haurrak erdigunean jarri eta besteak beste “baso majikoa” prestatu dute, ipuinak, fantasia, irudimena eta abentura protagonista. Gipuzkoako 20 ikastolen arteko jolas-joko topaketa ere izango dute eta eguerdian, goizean zehar gazteek eurek kozinatutako jakiekin bazkaria eta kontzertu txikia egingo dute. “Euskal musikaren ibilbidea” eta “Gastronomia” guneek ere eskainiko dute esperimentatzeko aukerarik.

Eguerdiko 12:00etan, gune guztietan une horretan burutzen ari den ekitaldietan etena izango da eta “Txoria-txori” abestuko dute denek batera.

HIRU HITZALDI

Goizeko 10:45ean, gogoetarako parada izango da, hiru hitzaldiren bidez. Jakoba Errekondo eta Javi Rivero “Ama” tabernako sukaldaria tertulian jarriko dituzte, “Baratzetik gastronomiara: iraultza baterako gakoak” gaia abiapuntu. “Ekologista naiz, baina...” hitzaldi-partehartzaile gidatuko du Gorka Egiak, kontsumo ohiturez hausnartzeko. Nerea Mendizabalek, azkenik, “Familia gatazka eta estresaren aurkako pilulak” gaiari helduko dio. ●

ADI FELIXSTOWEKO ZAMAKETARIEI: MUNDUKO MERKATARITZA KOLAPSATU ETA OLENTZEROREN OPARIRIK GABE UTZ ZAITZAKETE

Ingalaterrako Felixstoweko portuko zamaketarien grebak hankaz gora jarri du azken hamarkadetan nagusitu den kontainer bidezko merkataritza eredua. Erresuma Batuan XX. mendean 80.000 ziren portuetan zamaketan aritzen ziren langileak, egun ez dira 10.000ra iristen, baina itsas garraioa kolapsatzeko gaitasuna dute, erakutsiz sistemak bere burua zepoan harrapatu duela gero eta handiago izan nahiagatik. Langileen arteko elkartasuna barreiatu ahala, Asia Ekialdetik Europara datozen milioika tona produktu Gabonetara garaiz iritsi ezinik geratu daitezke.

 URKO APAOLAZA AVILA

Ez duzu zertan gelditu, alde egin dezakezu”, ihardetsi zion Clemence Cheng Felixstoweko portuko zuzendari exekutiboak langileetako bati, honek laneko baldintzekin ez zegoela gustura esan zionean. Cheng portuan zeuden grebalarien piketera *jaitsi* zen, lehen egunetik protesta utz zezatela konbentzitzera, baina bere jarrerak are gehiago sumindu zituen langileak. Abuztuaren 20a zen eta zortzi egunez luzatu zen Ingalaterrako portu nagusiko zamaketarien lanuztea, azkenaldian izandako merkataritza kolapso handienetako baten arriskuan utziz herrialdea.

Langile joka gorridunen eta Cheng exekutibo gorbatahunaren arteko pa-


sartea Isabel Ringrose kazetariari irakurri diogu *Socialist Worker* astekarian. Ringrosek Felixstoweko grebari buruzko jarraipena egin du ezkerreko hedabide horretan –Margaret Thatcher hil zenean hilobiaren argazki gainean *Rejoice* edo “poztu zaitez” hitza jartzeko erreparorik izan ez zuena– eta hango zamaketariak munduko merkataritza zergatik baldintzatu dezaketen azaldu du, besteak beste, aurtengo Eguberri-tako kanpainako eta are eguneroko produktuak europar kontsumitzaileen etxeetara iristea baldintzatzeraino.

“Felixstoweko portuko grebek erakusten dute, industria modernizatze-ko saiakeren ondorioz portuko langileen kopurua asko gutxitu arren, oraindik

boterea dutela. Ugazabak grebek sortutako etenaldiak gutxiesten ari dira, esanez ez dutela ‘inpaktu luzerik’ izango”, dio Ringrosek *Why dockers still hold the power to sink production* (“Zergatik zamaketariak oraindik boterea duten produkzioa hondoratzeko”) analisisian. Azaldu duenez, Felixstowera doazen zamaontziak handiegiak dira beste portu batzuetan deskargatu ahal izateko, eta Suezeko Kanalean duela urtebete gurutzatuta geratu zen *Ever Given* ontziarekin gertatu bezala, honek erakusten du munduko hornidura katea zein ahula den: “Edozein oztopok, langileen ekintzak barne, esan nahi du sekulako irabaziak galtzen direla”, ohartarazi digu kazetariak.

EKINTZA IRUDIMENTSUAK

Unite sindikatuko kide bat Felixstoweko portuan "surfeatzen" ageri den irudi honek munduari bira eman zion; zamaketarien borroka ezagutarazteko balio izan dute ekintza horrek eta egindako beste batzuek.



PA MEDIA

Elizabeth II.a erreginaren heriotzak Erresuma Batua hunkitu du hamar egunez, eta egunkariak arrosez tindatu ditu ingelesek ongi egiten dakiten moduan; baina hori ez da arrazoi nahikoa izan Felixstoweko portuan zamaketariak euren borroka uzteko. Portuko kudeaketa daraman enpresaren agintaritzak soldaten %7ko igoera proposatu die –Gasteizko Mercedes-Benzen eta antzeko lantegietan nahiko luketen zifra bat–. Baina inflazioa %10etik gora dagoela ikusita, ez daude prest pobretze gehiago onartzeko, eta 1.900 langileri pasatako inkestan –zeinean %78ak hartu duen parte– %82k eman du proposamenaren kontrako botoa; badakite badutela gaitasuna hori baino askoz gehiago exijitzeko.

**Datu batek balio
dezake ulertzeko
Felixstowe estrategikoa
dela nazioarteko
merkataritzarako:
Erresuma Batura iristen
diren kontainerren
%48 jasotzen du**

Irakurleari Net Hurbil hau heltzen zaionerako seguruenik hasia izango dute zortzi eguneko beste greba bat Unite sindikatu boteretsuak deiturik, gutxienez urriaren 5a arte iraungo duena: “Benetako soldata justu bat ordaindu beharrean, benetako soldata murrizketa bat inposatzen saiatu dira”, argudiatu du Sharon Graham sindikatuko idazkari nagusiak Twitterren, berriz ere grebara jotzeko. Orain, erabaki horren ondorio kalkulazinei aurre hartu nahian dabilta Erresuma Batuko eta beste herrialde askotako merkataritza-logistika arduradunak.

Datu batek balio lezake Felixstoweren estrategikotasuna ulertzeko: Europako portu handien Top 10ean ez dagoen arren –Herbeheretako Rotterdamgo por-

tu erraldoia eta beste batzuk oso aurretik ditu mugitutako tona kopuruan-, Erresuma Batura iristen diren kontainerren %48 jasotzen du. Horregatik, “zamatariarik gabe prozesua goitik behera eroriko litzateke guztiz”, dio Ringrosek bere analisisan.

Kazetariaren arabera, Asia hego ekialdetik Britainiar Uharteetaraino bidaia egiteko itsasontziek 40 egun inguru behar izaten dituzte, eta horrek esan nahi du grebak Eguberri hauetarako hornidurei eragin diezaiekeela: “Amazon, General Mills, Diageo, Kellogg, Mars Foods eta antzeko markak nozituko dute mina, euren produktuak edukiontzietan bilduta gertuko direlako”.

Portuetako agintaritzak eta merkataritza konpainiak saiatu dira garraioa beste portuetara bideratzen, baina ez dute erraza, bateko HGV edo ibilgailu pisutsuen eskasia, besteko *Brexit*-a... horrek guztiak ere eragina dauka katean. Eta bada beste faktore azpimarragarri bat: Felixstowera iristen diren itsasontziak handiegiak direla edozein moailatan sartzeko.

Kontainer bakoitzak TEU (*Twenty-foot Equivalent Unit*) bat neurtzen du (6,1 metroko luzera) eta itsasontzi bakoitza halako milaka kabitzen dira. Azken mende erdian hazkundea esponentziala izan da: 1950ean gehienez ere 800 TEU garraiatzen zituzten zamaontziek, baina 1968tik hona %1.200 handitu da gaitasuna, 25.000 TEU izateraino, eta granelean eramaten diren petrolioak, ikatza, burdina eta halako gaiak kenduta, egun munduko itsas-kargaren %90 kontainerretan doa ozeanotan barrena.

ATSEKABEAREN UDATIK, ATSEKABE GLOBALAREN NEGURA
Containerization, edo kontainer estanda-

Lehen milaka langileren artean kargatu eta deskargatzen zena, orain gutxi batzuek egiten dute garabi handien bidez. Paretik kendu nahi zituzten horien esku dago, beraz, katea eten edo jarraitzea

rren bidezko merkantzien garraioa, itsas konpainiek azken 70 urtetan kostuak gutxitu eta irabaziaz handitzeko emandako prozesua izan da, baina baita zama-langileek ugazabei ekartzen zizkieten buruhausteak paretik kentzeko modua ere.

“Moilak borroka gune izan dira Kapitalismoaren hasieratik Erresuma Batuan –dio Ringrosek–. 1889an portuko langileak matxinatu egin ziren ordu gutxi batzuetako noizbehinkako lana soilik bermatzen zien sistemaren aurka. Euren greba gakoa izan zen masa-mugimendu sindikalaren jaiotzan”. Hala, XX. mendean lorpen handiak izan zituzten; adibidez, Portuko Langileen Junta Nazionala sortu zen kontratazioak sindikatu eta ugazaben artean egiteko. Baina 1970eko hamarkadatik aurrera, sindikatuen kontrako legeekin, batasuna hautsi eta etsipena nagusitu zen langileen artean. “Geroztik [zamatetariak] greben kate-begi ahulena bezala ikusi izan dira. Baina orain Felixstowe erresistentziaren abangoardian dago”.

Kontainerren sistema zabaldu ahala portuko langileak gutxitu diren arren, jarraitzen dute garrantzia handia izaten: 1950eko hamarkadan 80.000 zamatetari zeuden herrialdean, 1973an 43.000 eta 2016an 10.000 besterik ez; baina lehen milaka laguneren artean kargatu eta deskargatzen zena, orain gutxi batzuek egiten dute garabi handien eta programa informatikoen bidez. Paretik kendu nahi zituzten horien esku dago, beraz, katea etetea edo jarraitzea.

Gainera, Felixstoweko gutxi ez eta, Ingalaterrako bigarren portu handiena den Liverpooloko langileak ere greban dira pasa den irailaren 19az geroztik. *Reuters* albiste agentziak zabaldutakoaren arabera 560 langiletik gora dira, eta portuko agintaritzak gaueko txandak moldatu ditu grebak eragin gutxiago izan dezan.

Baina itsas merkataritzako sektoreak jadanik sailhestezina ikusten du portuen kongestioa: “Panikoa espero dugu oporraldiko bidalketekin” adierazi dio merkataritza batek Container xChangeri. Logistika plataforma honek 1.500 konpainiarentzat egiten du lan 65 herrialdetan kontainerak alokatuz, eta Felixstowe eta Liverpooloko grebak hornidura-katearentzat “kolpe bikoitza” izango direla iragarri du. Zamaontziak Hanburgo, Rotterdam, Le Havre, Bremerhaven eta antzeko europar portuetara desbideratuko dira, baina haien okupazioa oso handia da, Container xChange egindako analisiaren arabera kontainer huts ugari pilatzen ari delako. Gainera, Txinan urriaren hasieran ospatuko duten Urrezko Asteak –lantegi ugari itxita egongo dira–, *Muifa* tifoia, edo Europan lehorteek ibai nabigagarrietan ekarritako oztopoek, ekaitz perfektua sortu dute udazken honetarako.

Udazkena langileek berotuko dute ordea, prezioen gorakadak eta pobretzeak



KOLAPSOA Felixstowera doazen kontainer-ontzi erraldoiak ez dira edozein portutan kabitzen, eta ontziak Europako portu nagusietara desbideratzen hasten direnean, haien kolapsoa etor liteke, okupazio tasa handia dutelako jadanik.

FELIXTOWEKO PORTUA

ELKARTASUNA Beste herrialdeetako babes mezu ugari jaso dituzte zamaketariek, eta Nazioarteko Garraioliaren Federazioak esan du bere esku dagoena egingo duela "grebak arrakasta izan dezan".



PA MEDIA

akuilatuta. Ingalaterran, Eskozian eta Galesen, zamaketariek gain, trenbideetako langileek, posta zerbitzuetaoek, zabor biltzaileek... greba zikloa hasi dute –askori 1979ko *Atsekabearen Uda* gogorarazten diona, Margaret Thatcher gobernuan jarri zuen protestaldia–, Liz Truss toryak Boris Johnsonen utzitako agintea hartu aitzin. “Krisi humanitario” hitza ere erabiltzen hasi dira osasun etxe batzuk, Axier Lopez kazetariak astekarri honetan azaldu zuen bezala (2.791 zk.). Eta jakina da britainiar uharteetan gertatzen denak kontinente zaharrean eragina duela. Ez alferrik esan du NBEko idazkari nagusi Antonio Gutierrezek

Mundu mailako logistika plataforma batek Felixstowe eta Liverpooleko grebak hornidura-katearentzat “kolpe bikoitza” izango direla iragarri du

“atsekabe globalaren negua” datorrela.

Isabel Ringrosek nahiago du “elkartasunaren globalizazioaz” hitz egin *Socialist Worker*-eko bere analisisan. Azaldu duenez, Unite sindikatuak beste herrialdeetako langileen babes mezu ugari jaso ditu, tartean Herbehereetatik eta AEBetatik. Garraioko Langileen Europar Federazioak (ETF) eta Nazioarteko Federazioak (ITF) –azkeneko honek 19 milioi garraiolari biltzen ditu– komunikatu bateratua atera dute zamaketarien alde, eta abisua jaurti dute: “Erabateko babes eta mobilizazioa bermatuko dira grebak arrakasta izan dezan”. Olentzerori gutuna lehenbailehen bidali, irakurle. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Magdalena Piñeyro

LODI MATXINOA



ARDURA INDIBIDUALETIK ATERA BEHAR DUGU, ETA LODIFOBIA ARLO KOLEKTIBOAN KOKATU



2013an, Magdalena Piñeyrok *Stop Gordofobia* (Stop Lodifobia) ataria sortu zuen beste kide batekin batera: garai hartan, jende gutxi zekien zapalkuntza horri buruzko ezer. Plataformak lan handia egin zuen terminoa Espainiako Estatuan zabaltzeko, eta, hamar urte geroago, gauzak nabarmen aldatu dira. Euskal Herriari dagokionez, gaia landu dute zenbait taldek (Ramonak kolektiboa, adibidez) eta pertsona zehatzek; nolanahi ere, irailaren hasieran 1. Jatunaldi Lodiak egin zituzten Gernikan –bertako mahai-inguruan parte hartu zuen Piñeyrok–: mugarri bat.

 DANELE SARRIUGARTE  DANI BLANCO

Zure bigarren liburuaren hasieran esaten duzunez, urte asko pasa zenituen isilik, indarkeria lodifobia izendatu aurretik. Gogoan al duzu noiz sentitu zenuen klik hori, gaiaz hitz egiteko premia?

Prozesu bat izan zen. Esango nuke lehen klika Tenerifeko 15M mugimenduan izan zela. 2011n plazan geunden, eta dena ari zen politizatzen: hitz egiten genuen gorputzaren politikez, asanbladez, horizontaltasunaz, ekologiak... Baina inork ez zituen aipatzen gorputz lodiak. Feminismoek ere ez zuten loditasuna espazio politikotzat hartzen. Orduan, gau batez, kide lodi batekin hizketan, gaia atera zen eta ohartu nintzen nire gorpu-

tzarekin gertatzen zitzaidana lodia iza-tearekin lotuta zegoela, eta ez zitzaidala niri bakarrik gertatzen. Horren argitan nire bizipen mordo bat aztertu nituen, eta ohartu nintzen ez zela kontu indibiduala, politikoa baizik, egiturazkoa: gizar-tean finkatutako diskriminazio modu bat. Noski, beste militantzia politiko eta borroka sozial batzuetan ibilitakoa nintzen, eta bidegabekeria bat ikusten dudanean, matxinatu egiten naiz.

Eta *Stop Gordofobia* sortu zenuen Carlos Savoierekin batera.

Informazio bila ibili ginen bi urtez, eta 2013an plataforma abiatu genuen. Baina ez zen militantzia automatiko bat

izan. Hasieran, guk bezalakoak bizi zituen jendea aurkitzeko sortu genuen orrialdea. Eta jende askok bere bizipenak azaldu zituen lehen pertsonan. Garai hartan beste militantzia politiko batzuetan nenbilen, adibidez, Bolonia planaren kontra ari ginen Ikasle Asanbladan, eta talde feministetan ere ari nintzen. Lodifobiarena, azkenean, interneteko hobby baten modukoa zen. Baina bi urteren buruan nire militantzia politiko nagusia bihurtu zen; izan ere, ohartu nintzen nire bizitzan jasan izandako zapalkuntzarik gogorrenetakoa zela, baina hala ere bigarren mailakotzat jo nuela neure lodifobia propioagatik, oso zaila baita horretaz hitz egitea.



Magdalena Piñeyro

MONTEVIDEO, URUGUAI, 1986



Uruguaiarra, Kanaria Uharteetara migratua. Filosofian lizentziatu zen, eta Genero eta Berdintasun Politiketako masterra ikasi zuen ondoren. 2013an, *Stop Gordofobia* orrialdea sortu zuen beste kide batekin batera; duela gutxi jarduera eten dute (edukiak mantenduta, halere). Plataformak 106.000 jarraitzaile izan zituen Facebooken, eta 15.000na Twitterren eta Instagramen. Piñeyrok bi liburu idatzi ditu –*STOP gordofobia y las panzas subversas* [STOP lodifobia eta sabel matxinoak] (Zambra-Baladre, 2016) eta *10 gritos contra la gordofobia* [10 oihu lodifobiaren aurka] (Vergara, 2019)– eta TEDx atarian *Acabemos con la gordofobia ya* [Suntsi dezagun lodifobia orain] hitzaldia eskaini zuen. Gaur egun, besteak beste, lodifobiaren, arrazakeriaren eta matxismoaren aurkako lanategiak eta hitzaldiak eskaintzen ditu.

Zaila da oraindik?

Bai. Lodifobiari buruz hitz egin nahi dugun aldiro, baten batek barre egiten du beti, ez zaio iruditzen borroka sozial bat denik. Hemen bertan gertatu zitzaidan, Euskal Herrian. Hitzaldi bat emateko deitu zidaten, eta talde mistoa zen. Bada, militanteek gizonetzko kideei aurre egin behar izan zieten, haiek ez zutelako nahi halako hitzaldirik antolatzerik; esaten zuten ea nolatan uste genuen lodiok politika egiten ari ginen; dieta egin eta argaldu, horixe egin behar omen genuen.

Ufa.

Halakoak ere izaten dira. Horregatik diotsut ahalduzko-prozesu bat izan dela hau borroka sozial bihurtzea. Hain lotsatuta geunden gure gorputzarekin, lotsa horrek ez baitzigun uzten honelakorik esaten: ez dut onartuko zuk ni iraintzen jarraitzea.

Badirudi lodiok bi armairu hautsi behar ditugula. Bata, gure burua lodi-tzat hartzea: “Lodia naiz”, eta ez “lodia nago”. Eta gero: ez daukat aldatzeko asmorik. Bigarren armairu hori ere hautsi behar da, eta horrek esan nahi du kementa duzula liburuak irakurtzeko, talde batean parte hartzeko, lodiekin biltzeko Euskal Herrian eta honen kontra borrokatzeko.

Ia hamar urte joan dira plataforma sortu zenutenetik, eta gauzak asko aldatu dira. Zer nabarmenduko zenuke?

Ikaragarria izan da. Aurrerapen nagusia, hitza asko zabaldu dela. Gero eta ezagunagoa da, eta askoz gehiago ezagutzen dira haren esanahia eta guk bizi dugun zapalkuntza. Gauza indartsua eta sendatzailea da gaiak hitz egitea. Eta, bestalde, pertsona lodi mordo batek ekin dio aktibismoari eta gaiari buruzko edukiak sortzeari.

Espainiako Estatuan, erreferentziazko

lodiaktibista asko herrialde latinoamerikarretako migratuak zarete –Lucrecia Masson, zu zeu...–, eta Latinoamerikan ere oso mugimendu indartsua da –Laura Contrera, Constanza Álvarez...–. Ez dakit loturarik ikusten duzun hor. Ez dut uste kasualitatea denik. Gorputzaren egoera kolonial baten kontzientzia piztu zitzaigula pentsatzen dut, halabeharrez. Hegoaldeko bizi

osoa pasatu dugu zapalkuntza hori bizitzaren, edertasunaren eta bizitzaren eta guzti-guztiaren kanonak beti izan baitira europarrak, zuriak eta ilehoriak. Ondoren, denborarekin, gaia teorizatu eta ikertu da, eta ikusi dugu lodifobiak erro sakonki arrazistak eta kolonialak dituela, Sabrina Strings-ek kontatu duen moduan.

Gainera, elkarrizketaren hasieran klikari buruz galdetu didazu, eta nire bizitzako klik nagusia migrazioa izan zen. Nerabea nintzela migratu nuen, eta bat-batean ohartu nintzen munduan desberdintasunak daudela, desberdintasun injustuak, eta, horren ondorioz, nire familiak eta nik neuk gure herrialdetik alde egin behar genuela. Halako lurralde batetik zatozenean, non badakizun bizitza oso injustua bizi duzula aberastasunaren banaketarekin txarraren, ustelkeria politikoaren eta abarren ondorioz, jada zalantzan jarria duzu munduaren ordena, eta errazagoa suertatzen zaizu zure gorputzaren bizkar jartzen dutena identifikatzea.

Liburuaren lehen atalean nabarmena da gaia ahalik argien planteatu nahi duzula, sakontasunik kendu gabe. Zaila da oreka hori lortzea.

Edozeinek irakurri eta ulertzeko moduko liburu bat idatzi nahi nuen, baina halako liburu batek behar duen sakontasunari eutsiz, zeren gai berria baita, gai konplexua, eta horri buruz eztabaidatzeko gauza izan behar dugu, zer gertatzen den azaltzeko gauza izan behar dugu, oraindik ere jende askok esaten baitigu lodifobia ez dela existitzen. Beraz, hizkuntza erraza eta gutzientzako modukoa erabiliz, lodifobia existitzen dela azaldu eta zabaldu nahi nuen.

Zure lehen liburuan, aldiz, lodifobia ikuspuntu teorikoago batetik azaltzen zenuen.

Bai, nire lehen liburuan masterreko tesia bildu nuen. Nire teoriaren arabera, lodifobiaren zapalkuntza hiru ardatzek zeharkatzen dute: estetika, osasunak eta moralak, eta ezin dira bereizi. Alde estetikoak gorputzaren kanpo-eredu bat eskaintzen du, eta gorputz lodia zatar eta nazkagarritzat jotzen. Alderdi hori erraz identifikatzen da. Ondoren, osasunari dagokionez, gorputz lodia gaixo dagoen gor-



putz gisa hartzen da, homosexualitatea ere gaixotasuntzat jo izan den moduan. Zientziak eta zapalkuntzak harreman estua dute; beste momentu batean luze eta zabal jardun gintezke horretaz.

Eta ardatz morala?

Beste biei buruz hausnartzen ari nintzela aurkitu nuen. Nire kautan honela pentsatzen nuen: jende asko gaixo dago, eta badira beste asko ez datozenak guztiz bat edertasun-kanonarekin, baina ez dute lodiok adinako indarkeriarik jasaten. Guk indarkeria izugarria jasotzen dugu gure gorputzen gainean: irainak, bullyinga, indarkeria medikoa, jazarpena kalean... Orduan, hor badago beste zerbait. Eta alderdi morala da: pertsona lodiok garen modukoak izatea aukeratzeko. Eta hortixe dator zigorra.

Gainera, horrek harreman estua du gorputzaren beste ulerkerarekin, zeinak gorputza autoeraikia dela esaten baitu, eta kanpoan uzten baititu gorputza taxutzen duten testuinguru sozioekonomiko, kultural, genetiko eta abarrak.



**Pertsona lodiok
garen modukoak
izatea aukeratzen dugula
uste da, edo ez dugula
aski ahaleginik egiten
gorputz-kanonarekin
bat egiteko"**

Eta, bestalde, galdera bat bota nahi nuke: gaur egun, nork dauka modurik osasunaren aginduak betetzeko, hau da, egunean bost fruta eta berdura jan, lauzpabost jatordu egin, ariketa fisikoa ordubetez, zortzi ordu lo egin, antsietaterik gabe, lana eta egonkortasun ekonomikoa ziurtatuta izanda hori guztia egin ahal izateko? Osasunaren moralak langile-klasea zigortzen du.

Halaber, liburuan zalantzan jartzen duzu *body positivity* korrontea. Ez duzu uste norbere gorputzarekin ondo sentitzea jarrera-kontua denik.



Azken hitza AKATSAK

"Denok izan ditzakegu jarrera arrazistak, lodifoboak edo marxistak, gure gizarteetan horretarako hezi gaituzte eta. Mugimendu sozialetan punitibismoa alde batera utzi behar dugula iruditzen zait, eta erantzukizuna aldarrikatu behar dugula: Uruguain "kargu hartzea" esaten diogu. Niretzat kontua ez da akatsa bera, ezpada nola egiten diogun aurre. Zer egingo duzu zuk 'lodia' hitza erabiltzeak sortzen dizun lotsarekin? Niretzat hori da garrantzitsuenak. Ez zuk orain lotsa sentitzea 'lodia' esateko, ezpada zer egingo duzun lotsa horrekin hemendik aurrera, lodifobia dela jakinik".

Uste dut autoestimua ere auzi politikoa dela eta oso zaila dela norbere burua ez gorrotatzea mundu honetan, zeinak gorroto zaituen eta gorroto horretarantz bultzatzen zaituen etengabe. Eta uste dut gure burua maitatzera behartzea autozigortzen segitzeko modu bat dela.

Azken batean, logika horretan, kontua ez da bakarrik “munduak gorroto naudelako gorroto dut nire burua”, baizik eta, gainera, ez dut lortzen nire burua maitatzea gorroto nauen mundu batean, eta horregatik ere txarra naiz. Beste ardura indibidual bat. Uste dut ardura indibidualetik atera behar dugula, eta hau guztia arlo kolektiboan kokatu.

Hitzaaldi eta lantegi mordoan egin dituzu. Zerekin topo egiten duzu normalean?

Osasunari buruzko galderekin, batez ere. Eta sekulako minarekin. Sekulako lotsarekin. Adibidez, lehen liburua aurkeztu nuenean, bira eten behar izan nuen, ezin niolako eutsi. Ezin nion hain besteko minari eutsi.

Eta gauza ederrik?

Liburua aurkezten gertatu zaidan gau-

zarik politenetako bat Madrilan izan zen, La 13-14 izeneko zentro okupan. Dena hippyzez eta punkiz beteta, eta hara non iritsi zen adineko emakume bat, gona belaunetarako, zapatatxoak, apain-apain orraztuta... Nik, nire aurreiritzi guztiekin, okertu egin zela pentsatu nuen. Baina hitzaaldi amaitzean liburua erosi zidan, eta esan zidan alabak ez zio- la hitz egiten eta horregatik etorri zela. Zergatik ez zion hitz egiten alabak? Ba, antza, amak argaltzeko esan zion, eta alabak erantzun zion “zuk nahiago zenuke alaba drogazale bat izan, alaba lodi bat baino”. Eta hortik aurrera ez zion gehiago hitz egin. Orduan andreak esan zidan alaba ulertu nahian etorri zela hitzaaldira, eta liburua sinatzeko eskatu zidan, alabari oparitzeko eta barkamena eskatzeko.

Oilo-ipurdia.

Bai, benetan. Azken batean, osatze kolektibo bat da. Aurkezpen bakoitzean, hitzaaldi bakoitzean, jendeak gauzak kontatzen dizkizu, edo beste norbaiten istorioa entzuten du, edo batek amarentzat erosten du liburua. Zerbait sortzen ari da, eta oso hunkigarria da.

Nola jaso dira lodiaktibismoaren aldarrikapenak feminismoetan?

Tokiaren arabera. Espazio batzuetan lodifobiaren gaia onartu dute, aintzat hartu beharreko borroka bat dela ikusi dute, eta eragin egiten diela. Beste espazio batzuetan, ez. Zenbait lekutan esaten dizute lodifobia ez dela existitzen eta loditasuna txarra dela osasunarentzat. Eta beste gauza bat gertatu da, mundu angloan lodiaktibismoa hasi zenetik errepikatu dena: borroka honetaz jabetzen da feminismoa, azken batean mundu guztiari eragiten diolako lodifobiak, baina, azkenean, halako mezuak bultzatzen dituzte: “gure burua maita dezagun” eta “guztioi gertatzen zaigu gauza bera”. Eragiten dien zatiari erreparatzen diote, baina ez dute beren pribilegioen ardurarik hartzen. Izan ere, guztioi ez zaigu gauza bera gertatzen: ni ozta-ozta sartzen naiz aulki honetan, eta zu erraz. Ez zaigu gauza bera gertatzen, eta ez da ezer gertatzen. Gure desberdintasunek ez gaituzte zertan banatu, Audre Lordek zioen moduan, baina mahai gainean jarri behar ditugu, haien kontra borrokatu ahal izateko. ●



Iragarki honetan azaltzen diren pertsonak ez dira errealak, ordenagailu batek sortu ditu ausaz.

Benetako pertsonak ordenagailu batean ezagutzeko zatoz **kaixomaitia.eus** atarira!

 **kaixomaitia** Euskaldunon harremanetarako webgunea

8.000 lagun dituzu zain





“Botiflers”

Udak bide eman dio udazkenari eta, beste urte batez, Katalunian ikasturte politikoa berriro hasi da Irailaren 11ko ospakizunekin. Printzerriko Diada Nazionalak, paradoxikoki, porrot bat ospatzen du: Bartzelonaren gaineko hamalau hilabetezko setioaren ondoren, 1714an tropa borboitarrek hiria okupatu zutenekoa.

Gerra hartan bertan, Ondorengotza Gerra bezala ezaguna, zabaldu zen Herrialde Katalanetan “botiflers” terminoa. Horrela deitzen zitzaizen Gaztelako Felipe V.aren aldekoiei, eta, gaur egun ere, izen hori mespretxuz erabiltzen da “beren herrialdearen etsaiekin kolaboratzen” duten kataluniarrez hitz egiteko.

Aurten, hitz hori izan da, zalantzarik gabe, aldarrikapen egunean gehien errepikatu dena. Horrek erakusten du independentismoa zer puntutan dagoen gaur egun, 2017ko urriaren 1eko autodeterminazio-erreferenduma egin eta soilik bost urtera.

Generalitateko Gobernuak bi alderdien (ERC eta JxCat) arteko etengabeko liskarrak eta haien, CUPen eta Procès delakoaren motor bihurtu ziren hiru erakundeak (ANC, Omnium eta Independentziaren aldeko Udalerrien Elkar-teak) artean ibilbide-orri bateraturik ez izateak, tonaka frustrazio eragin dute, mende honetan Europan izan den askapen nazionalako mugimendu politikorik handienean.

Ezbairik gabe, Espainiako Estatuak gauzatu duen errepresioak ekinga po-

Gaur egun ere
“botiflers” terminoa
mespretxuz
erabiltzen da “beren
herrialdearen etsaiekin
kolaboratzen” duten
kataluniarrez hitz
egiteko. Irailaren 11n
gehien errepikatu den
hitza izan da

litikoa baldintzatu du, Òmnium-ek jasotako datuen arabera, 1.400 pertsona baino gehiago ikertu baitituzte prozedura penaletan, eta prozedura kontable eta administratiboek 1.200 lagunengan izan dute eragina. Elementu desmobilizatzaile horiek kontuan hartuta, eta pandemiak protesta mota guztiak baldintzatu zituen bi urteak gehituta, ANCK deituta 272.000 manifestarik Bartzelonako kaleak hartu zituzten, Directa-ren zenbaketaren arabera.

Pere Aragones presidentek uko egin zion parte hartzeari, iritzi baitzion bere gobernuaren aurka zihoala, eta gobernuak “transbertsala” izateari utzi ziola. Ahalegin desmobilizatzailea eta deskribatutako testuingurua gorabehera, pro-

testa arrakastatsua izan zen, eta gero eta handiagoa da sektoreen arteko distantzia, independentziarantzko urratsak gidatu behar dituen estrategia dela-eta. ANCK Aldebakarreko Independentzia Adierazpenaren (DUI) indargabetzea kentzearen alde egin duen bitartean –konbergentzia osteko sektore baten hitzeko babesarekin–, ERCK gobernu zentralarekin negoziazio-mahai bat elikatzen jarraitzen du, baina oraindik ez du lortu proposatutako konpromisoetako bakar bat ere.

Hau da, bi alderdi nagusiek eta erakundeetako batek, eraginik ez dutela edo zuzenean bideraezinak direla erakutsi duten estrategien alde egiten dute. Horiek guztiak, erretorika irreal batek hartu ditu, zeinak suntsitu besterik egin ez duen estatua kolokan jartzeko bertute nagusia izan zena: gutxieneko adostasunetan oinarritutako batasuna lortzea.

Panorama horrekin, “botiflers” hitza arma moduan erabili zuten guztiak, guztien aurka, dekadente bihurtzeko arriskua duen jardunaldi batean, salbu eta zarataren erdian ez badira nagusitzen umiltasuna, zintzotasuna eta norberaren mugen onarpena. Bien bitartean, Felipe VI.a, duela 300 urte baino gehiago Bartzelona suntsitu zuenaren oinordeko duina, igaro da 2017ko urriaren 3an larrialdiko hitzaldi bat ematetik, barne-zatiketak bere erresumari lasaitasuna nola itzultzen dion modu irrigarrian begiratzerara. ●



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Infantilizazioa



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Eskola ez da etxea ez familia, baina haiengandik kontzeptualki hurbilago dago institutua baino, eta hau gehiago unibertsitatea baino. Azken honetan familiek ez dute zer esanik ikasketa prozesuaz. Institutuan zeresan handiagoa dute (gauza bera ez bada ere DBHko lehen maila eta batxilerrereko bigarrena, non batzuk adinez nagusiak diren) eta eskolan, oraindik gehiago. Baina eskola bera ere ez da etxea. Etxean, gutxi batzuen arteko semea edo alaba den haurra (edo seme-alaba bakarra), beste askoren arteko ikasle bat gehiago da eskolan. Ona da hori baino ez izaten ikastea. Jakina, gure gertukoentzat bereziak eta errepikaezina gara, baina esparru publikoan denok izan behar dugu berdinak. Ez dut esan identikoak: berdinak, inor ez delako inor baino gehiago edo gutxiago. Eskolan ikasi behar da hori. Ez dago curriculumeko gaien artean, ez helburuetan, ez da konpetentzia bat. Baina egitateen bidetik ikasten den zerbait da.

Aspaldi, hamalau urterekin heltzen ginen institutura, derrigorrezko hezkuntzaren amaieran. PSOEko Espainiako gobernu batek LOGSE ezarri zuenetik 90eko hamarkadan, hamabirekin iristen da. Lehen, institutuko ikasleak unibertsitateko ikasleengana hurbiltze-

ko moduan tratatzen ziren. Adibidez, ez genien orain bezainbeste kontrolatzen klasera joatea: neurri batean, beren aukera zen. Hori bai, gero geroakoak: pentsaezina zen ikasturtean ikasgelatik agertu ez zen ikasle bat, ez gaituz gero, protestaka hastea edo gurasoak agertzea azalpen eske. Gehienek oso ondo erabiltzen zuten askatasuna, erantzukizunez jokatzuz eta klaseetara joanik. Batxilergoan behartuta egotea, klasea oztopatuz, pentsaezina zen. Bada, urteak aurrera joan eta institutuetaiko ikasleak gero eta gehiago agertu dira haur gisa eta gutxiago helduaroaren bidean dauden gazte gisa. Aldi berean, institutuko irakasleen lana izugarri hurbildu da eskoletan egiten den horretara, unibertsitatekotik urrunduz.

Irakasleek ez lituzkete ikasleak jolas-orduetan zaindu behar, baina patioak zaintzen jarri gintuzten eta hor gaude, gainean botatzen diguten guztia irensten duen kidego desmobilizatua garelako. Inoiz azaldu didate jolasaldietan gauza asko ikus daitezkeela ikasleek erlazionatzeko moduez, baliotsuak izan daitezkeenak jokabide batzuk prebenitzeko. Dudarik ez, baina asteburuak haiekin pasatuz gero ere lortuko genuke horrelako informazioa. Jolas-garaian ikasleak zaindu behar badira (horrek

berezko eztabaida beharko luke), horretarako langileak kontratatu beharko lirateke, kristalak garbitzen dituzten langileak kontratatzen diren bezala. Matematikako irakasle batek, historiakoak, biologiakoak, filosofiakoak, edo beste edozein ikasgaiarenak, lana ikasgelan egin behar du batez ere, edo irteera eta txango didaktikoetan, ikasleekin, eskola-orduetan. Eta bere lan-mahaian: irakasle baten orduak gutxi dira beti eskolak prestatzeko eta ariketak eta azterketak zuzentzeko.

Infantilizazio masiboaren prozesu orokorra institutueta erabat suntsitzailea da. Jakin beharko genituzkeen gauza sinple batzuek gero eta ahaztutago dirudite: askatasuna eta erantzukizuna, eskubideak eta betebeharrak, ditxosozko txanponaren bi aldeak direla. Askatasunik gabe ez dago erantzukizunik. Betebeharra betetzea eskatu ahal izateko, eskubide batzuk aitortu behar dira. Bada, familien eta ikastetxeen gehiegizko babesak bata eta bestea kentzen dizkie nerabeei, izaki mutilatu bihurtuta, beren bizitzekin zerikusirik duen ezeren kargu egiteko gai ez diren gizakume. Zikiratutako izakiak, heldu gisa tratatuak izaten ailegatzeko interesik gabekoak, ito arte pantailan murgilduta. ●

Merezi dugun eskola



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Etsipenez, beste behin ere, utzi diot gaiaz informazioa irakurtzeari. Bataila galdu (zein irabazi) batetik bueltan datorren astoa bezala noa nire kortara. Ni galtzaileen bandokoa: Euskal Eskola Publikokoa. Baina irabazleen bandoko astoak irabazi al du? Nago denok galdu dugula.

Izan ere, nire ustez, ospatzeko moduko garaipen bakarra izango litzateke bateko eta besteko astoek bat egiteko moduko “banda” bat osatu, eta segregazioa, ez euskalduntzea eta erlijioaren kontra joko bagenu. Eta, ondorioz, erkidegoko ume gehienak eskola euskaldun, anitz, laiko, hezkidetzaille, inklusibo eta publiko batean matrikulatuko balira etorkizunean.

Ez da gertatuko.

Denek ez dugu eskola eredu bera nahi, ados. Batzuek kristau eskola, era honetako edo hartako eskola bat, edo ikastolen elkarte nahiago dute, ados. Baina publikoa kaltetuta irten da berriz (EAEn ume gehien hezitzen eta euskal-

duntzen dituen eskola).

(Barka, ez noa sartzera “espainiar publikoa” ez dela “euskal publikoa” eta halakoetan –ikastolak ere espainiar sistema horrexen parte dira, EAE espainiar autonomia bat den gisa berean–). (Besterik gabe, Gabriel Aresti frankismo garaian(!) zegoen ikastolako kuoten kontra, eta neu 2022an ere bai).

Euskara ofiziala ez den lekuetan ikastolak egon daitezen, dirua eta lan militantea? Ados. Ikastolen ondarea (historia, pedagogia, kurrikuluma...) edozein eskolak baliatu? Ados.

Gure bandokoei: ez nago ikastolen kontra, eta ez zait gustatzen euskal eskola publikoaren “defentsan” ikastolak iraintzea.

Ikastolei: euskaldunak, eskandinaviar blondak, korearrak eta swuahili beltzek bakoitzak bere kortara joaten segituko dute.

Beharbada, Euskal Herria estatua izan baino lehen bihurtu beharko dugu ikurrina sukaldeko trapu. ●

Heriotzarik ez, eskubideak guztiontzat



**ARANTZA
GUTIERREZ PAZ**
EHU-KO
IRAKASLEA

Europara heldu nahian pertsonak hiltzea ezin dela onartu salatzeke, eta behin gurera iritsita, europar herritarren eskubide berberak izan ditzaten exijitzeko, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka lan egiten duten elkarteetako militanteak bilduko dira Bruselan irailaren 30ean eta urriaren 1ean.

2016an abiatu zen lehenengo Mugak Zabalduz karabana, orduan Greziara joan ziren hirurehun pertsona –ehun baino gehiago Hego Euskal Herrikoak–. Urtez urte, muga ezberdinetara salaketa eramateaz gainera, European ari diren beste erakunde batzuekin amarauna ehuntzen joan da. Horren emaitza da Bruselan antolatu den topaketa, non tokian toki solidarioek egiten dituzten ekintzak ezagutzeaz gainera, Europa ha-

rrera herria izan dadin beste politikak exijituko diren. Ukrainiako errefuxiatuekiko politikak agerian uzten du nahi bada posible dela.

Auzia, ordea, ez da soilik mugak zabaltzea. Behin European, pertsona migratzaile askok urteak ematen dituzte haien egoera administratiboa erregularizatu nahian. Paperik ez izateak oso egoera zaurgarrian uzten ditu, esplotatuak izateko arrisku larrian, oinarritzko eskubiderik gabe, bigarren mailako herritar bihurtuta.

Baina, gero eta gehiago gara “gure izenean ez” oihukatzen dugun Europako herritarrok, eskuinak duen xenofobia eta gorrotaren mezuaren gainetik harre- ra herria garelako aldarrikatzen dugunok, baita Euskal Herri- tik ere. ●

Iragana defendatzean



**NEREA IBARZABAL
SALEGI**
BERTSOLARIA

Haurtzaroa “aberri emozional txikia” dela idatzi zuen Los Chikos del Maíz-eko Nega abeslariak; zahartu ahala, gure umetako zein gaztetako bizipenak idealizatzeke joera hartzen dugula esan nahi zuen. Haiek bai kantuak, ordukoak bai parranda sanoak, lehengoa bai benetako bizitza, benetako mundua, zeinetan neuintzen protagonista, gazte eta eder. Zernahi defendatzera iristen gara aberri lurrin hura salbu mantentzearen, *comecocos*-etik hasi eta domeka goizetan ikusten genituen marrazki bizidunetaraino. Berdin dio kontsumitzen edo egiten genuenaren kalitate objektiboa zein zen; aldakaitz mantendu nahi izango dugu, utzi genuen bezalaxe, horixe delako hara itzultzeke dagoen modu bakarra. Hurrengo belaunaldiei beti faltako zaie zer bait autentiko izateko.

Ohiko prozesua izango da beharbada, erresistentzia instintibo bat. Denok nahi ditugu heldulekuak, erritualak, nostalgia, gauzen errepikapena, seguru sentiaraziko gaituzten etxeak. Kontua da ea ba ote dakigun zer ari garen defendatzen gure aberri emozionalak defendatzen

Jende heldua da
kexatu dena, noski,
bere haurtzaro zuria
arriskuan ikusi duena.
Inoiz ez omen da
sirenatxo beltzik egon,
are gutxiago elfo beltzik

ditugunean. Ea gai garen eta ea prest gauden aberri hori sostengatzen duten ideologiak ikusteko eta zalantzan jartzeko.

Adibidez, aldaketa bat “behartua” edo “artifiziala” dela iruditzen bazaigu, guretzat “naturala” zer eta zergatik den azaltzera ausartu beharko ginateke. Demagun, emakumeen parte hartzea plaza publikoan. Artifiziala da emakumez osatutako ekimen kultural bat zure herriko

jaietan, kupo usaina hartzen diozu. Naturala da 50 urtean gizonez osatutako egitarauak antolatu izana, jakinekoa baita haiek ez datozela gizonak izateagatik, izaki argitsu eta puruak direlako baizik. “Naturala” esaten duzu, “ni eta nire modukoak” esatea gehitxo delako.

Orain ikus-entzunezko produkzio pare batekin piztu da enegarren eztabaida. *Boterearen eraztunak* eta *Sirenatxoa*. Ustez *Eraztunen Jauna*-ren eta Disneyren zale sutsuak zirenak goragoraka hasi dira protagonista paperetan aktore beltzak jarri dituztelako. Jende heldua da kexatu dena, noski, bere haurtzaro zuria arriskuan ikusi duena. Inoiz ez omen da sirenatxo beltzik egon, are gutxiago elfo beltzik. Hori ez ei da naturala. Fantasiatzeko kontakizunetan ere pertsonaia zintzo eta irabazle guztiak zuriak izatea omen da naturala, horrelaxe jaso genuelako umetan, Jesukristo eta Kleopatra ere zurbilak eta begi-urdinak diren moduan, guri eta gure aberrikide emozional arrazistei hala komeni zai-gulako. Pentsa dezagun iraganaren aitzakiapen zer babestu eta zer baztertu nahi dugun benetan. ●

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:




GOTAIN- IRABARNE

📅 Urriak 1, larunbata, 17:00
📍 Herriko Gela

GASTEIZ

📅 Urriak 2, igandea, 17:00
📍 Europa Biltzar Jauregiko
Maria de Maeztu entzunaretoa



LEHENENGO FASEA



MONDRAGON Kilometroak eginez

MONDRAGONen kooperatibok bidea egin dugu
euskal kultura, ohiturak eta hezkuntza babesten:
Kilometroak! Aurten Ibarran dugu hitzordua. Irribarra.





Drogak legeztatu ingurumena zaintzeko?

Drogak legeztatzeari buruzko eztabaidak txinpartak ateratzen ditu gizartean planteatzen den gehienetan. Alde batetik eta bestetik elkartzen dira argudioak eta beldurrak. Azkenaldian, ordea, dema hori sarriago agertu da hedabideetan, zenbait herrialdek marihuanaren kontsumoa legeztatzea edo despenalizatzea erabaki ondoren. Legali-

zazioaren aldeko ohiko argudioak izaten dira norberaren gorputzaren gaineko askatasuna aldarrikatzea eta narkotrafikoari, mafiei eta drogen adulterazioari aurre egiteko substantzien gainean kontrola arautzea. Artikulu honetan legalizazioaren aldeko argudioei beste ikuspegi bat gehitu nahi izan diogu: ingurumenari ekarriko lizkiokeen onurak.

Euskarriak herriarrek –marihuanaaren kontsumo mailan goiko postuetan daudenak– legez kanpo dauden zenbait drogen normalizazioarako pausuak ematearen alde agertu dira hainbatetan. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak gaiaz egindako azken inkestaren arabera, 2017koa, kalamuaren salmenta legeztatzearen alde (%53); eta ia adostasun erabatekoa dago gaixotasunen tratamendurako marihuanaaren erabilera terapeutikoaren alde (%89). Edonola ere, itxuraz, adostasun orokorra dago kontsumoaren fenomenologiari buruzko egiazko informazioa herritarrei gaztetatik eskaintzeari buruz: ondorio kaltegarriak eta onuragarriak, posologia egokia adinaren eta kontsumoaren arabera...

Marihuanaaren kontsumoaren normalizazioak bidea urratzen jarraitzen duela dirudi. Legeztatzearen aldeko ahots eta arau berriak agertzen hasi dira azken urteotan; Uruguai, Kanadak, Hegoafrikak eta AEBetako zenbait estatuk marihuanaaren kontsumoa ludikoa legeztatze bidean hartutako erabakiek hauspotu dute gaia, baita Malta 2021ean onartutakoa ere. Malta izan da marihuana landatzea eta eremu pribatuan edukitzea baimendu

Drogen legalizazioaren eztabaidari heltzeko, interesgarria da drogen prozesu osoa kontuan hartzea

duen Europako lehen herrialdea; Parlamentuak onartu ondoren, Maltako helbuei zazpi gramo kalamu eduki eta lau landare landatzeko aukera ematen die legez, nahiz eta ez duen onartzen kalamua jendaurrean erretzea. Bien bitartean, aurrerapausoak aurrerapauso, Euskal Herrian cannabis-klub prekarioen aurkako jazarpenak ez du etenik izan.

Legalizazioaren inguruko ezbaia sortzen dituen kontraesan eta arazoentzako jatorria aspalditik dator. Oso atzera jo beharko genuke argitzeko zergatik debekatu diogun gure buruari naturak sortzen dituen hainbeste substantzia erabiltzea. Ikuspegi errepresore, debekuzale eta atzerakoiaren lorpenik handiena drogekin trafikatzeko duten mafiak indartzea izan da, eta, horren ondorio zuzenetako bat da herritarrek ez jakitea zehazki zer sartzen ari diren gorputzean legez kanpoko droga bat edo beste kontsumitzean. Iaket elkarrekin urtero ohartarazten du arazo honen tamainaz festetan jartzen dituen gune irekietan jasotako substantzia-laginetan oinarrituta: “Drogak gero eta nahasiago daude, adulterazio maila altua da”.

Drogen debekuak baditu ondorio politikoak. Legalizazioaren alde lanean aritzen diren ezkerreko kolektibo gehienek azpimarratzen dute drogen eta haien kontsumoen aurkako neurrien izenean, gizartearen klaserik apalenak izan direla beti kaltetuenak. Gurean, ikusi besterik ez dago, Mozal Legearen bitartez jarritako isunen gehiengo zabala lotuta dagoela drogen kantitate txikiak aldean eramatearekin. Eskala handiagora eramanda, “drogen aurkako gerraren” aitzakiapean herritarren aurka egin diren bidegabekeriak askotarikoak dira: izan 1980ko

hamarkadako Nikaraguan AEBek Kontrafinantzatzeko narkotrafikoa erabili zutenean, edo azken urteotan Mexikon edo Filipinetan gertatutakoak kasu.

Drogen kontsumoak –areago kontsumo orokorra denean– dakartzen kalteak ere ez dira gutxietsi behar: ajea, eragin psikologikoak, menpekotasuna, gure arteko harremanen desitxuraketa (afektiboak, sexualak, laboralak, politikoak, jai giroan...) eta abar. Zenbait eremutan drogen kontsumoaz hitz egitea tabutik gertu egon da. Horren adibiderik garbiena da Euskal Herrian, jai eremuetan eta herri mugimenduetan, drogen eta haien erabilerari buruzko eztabaidek –gehienetan eztabaida ezak– eragindako kalapitak. *Drogak, kapitalismoa eta mugimendu erradikalak* liburuaren egile Aitor Aspuru aipatu izan duenez, “normalean herri mugimenduetan geure egiten dugu ‘pertsonala politikoa da’ esaldia, baina drogen erabileraren inguruan ez diogu alde horretatik begiratu nahi, antza”.

Edonola ere, politikariak substantzia edo landareren bat edo beste legeztatzeaz eztabaidatzen ari direnean, komeni da letra txikiari begiratzea. Ez dira gauza bera legeztatzea eta despenalizatzea, ez da berdina kontsumo ala trafikoa despenalizatzea, ezta kontsumo pribatua ala publikoa zigortzea ere. Horregatik, legalizazioaren inguruko eztabaidari heltzeko, interesgarria da drogen prozesu osoa kontuan hartzea. Hau da, legeztatzeak ekarriko lituzkeen onurak aztertzea, drogatzat ditugun substantziak lortzeko landareak landatzen diren unetik herritarrok kontsumitzen ditugun arte, tartean diren pausuak guztiak barnebilduz.

Ildo horretatik, interesgarria da Sylvia Kayk *The Ecologist* hedabidean uztailaren argitaratutako artikulua. Kay ikertzaile da, eta nekazaritza eta ingurumen justiziarikin, elikadura sistemarekin eta lur eta natur baliabideen politikarekin lotutako gaiak jorratzen ditu. Creative Commons lizentziari esker, jarraian partekatuko dugun artikuluan dio, zenbait landareri –kalamua, koka eta opioa, besteak beste– ezarritako debekuak sustatzen dituzten politika globalek ingurumenari kalte egiten diotela. Kay azpimarratu duenez, zenbait txostenek jakitera eman dute drogen debekuak kontsumo ez gutxitzeaz gain, ekoizpen eta banaketa klandestinoek eta horiek deuseztatze ahaleginek ingurumena nabarmen kutsatzen eta kaltetzen dutela. Horretarako egileak hainbat herrialdetako kasu zehatzak aletzen ditu artikuluan. ●





**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Drogak legalizatzeko ordua iritsi al da?

Askotan, drogak ez dira ingurumenaren alde ari diren ekintzaileen kezka iturri, ezta natura zaintzeko politiketarako kontuan izaten ere. Drogak ez dira ezta aipatu ere egiten klimari edo biodibertsitateari buruz munduan egin diren azken akordioetan. Baina Droga eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Bulegoak drogak eta ingurumena lotzen dituen "Drogei buruzko Munduko Txostena 2022" argitaratu du, lehen aldiz.

 **SYLVIA KAY** / Artikulu hau *The Ecologist*-ek argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

2009an *The Ecologist* hedabidean argitaratutako "Drogen ingurumen-inpaktua" artikulua batakako kontsumitzaileengan jarri zuen ardura: ingurumena babesteko bidea, norberaren ohiturak aldatzea da. Eskakizun moral hori ulergarria bada ere, ez da bide bakarra droga-politike-tan ingurumen-kalteak murrizteko.

SUNTSITZAILEA

Transnational Institute (TNI) erakundeak uztailen argitaratutako txosten batek drogen eta ingurumenaren arteko loturan sakontu du, ikuspegi berezia eskainiz lege kanpoko hiru droga nagusien landaketen gainean: cannabisa, koka eta opio-belarra.

Mundu osoko hainbat kasu jorratu dituzte txostenean, drogak oinarri dituen nekazaritza-ekonomia horiek eragiten dituzten ingurumen-inpaktuak aztertu dituzte, baita horien aurrean estatuak emandako erantzun politikoak ere. Inpaktu horiek oso errealak dira.

Afganistanen, eguzki-energiaren bitartez funtzionatzen duten ur sako-netako putzuak ustiatzeko teknologia berde berriak – Txinatik inportatutakoa – aukera eman die nekazariei lurpeko ur-erreserbak aprobetxatzeko eta basamortuko lurretan opio-belarra landatzeko.

Ondorioz, geruza freatikoa murrizten ari da –urtean hiru metrotik gora–, eta horrek nabarmen handitzen ditu lehortek gertatzeko arriskua eta haien larritasuna.

Amerika Erdialdeko Andeatako eskualdetik AEBetako merkatura doan kokaina trafikoaren ibilbide berriek eragin dute zenbait biosfera zaurgarritako eta parke nazionaletako basoak moztea, merkantziek betetako hegazkinak lurreratzeke.

Legez kontra lortutako irabaziak zuritzen dituzte oso suntsitzaileak diren nekazaritza-produktuak ekoizteko beste sistema batzuetan inbertituz, bereziki abeltzaintzan, ustiaketak ekosistema hauskorretaraino eramanez.

SENDAGAIA

Marokoko Rif eskualdean, gero eta handiagoa den kanabisaren ekoizpe-naren industrializazioa, Espainiako Estatutik eta Herbehereetatik inpor-tatutako errendimendu handiko ba-rietate berriak erabiliz, eragiten ari da mendi-hegaletako lurren higadura, degradazioa, deforestazioa eta biodi-beritatearen galera.

Ingurumenari egindako kalte ho-riek begi-bistakoak badira ere, atzean dauden faktoreak lehen begiratuan eman dezakeena baino konplexuagoak dira. Gaur egun "legez kanpoko drogen laborantzatzat" jotzen dena mendeetan barrena, milurtekoetan ez bada, landatu dute herri indigenek eta lan-da-komunitateek.

Hori egin zuten ingurumen-sun-tsiketa handirik eragin gabe, eta ze-remonia eta praktika tradizionaletan erabiltzen dira oraindik ere, tokiko medikuntza gisa.

Praktika eta tradizio horiek, asko-tan, ekonomikoki ez-eraginkortzat eta beraz ekologikoki kaskarragotzat jo-tzen ditu garapenari buruzko pentsa-mendu ildo *mainstream*-ak.

Horrek, ordea, ez du kontuan har-tzen "garapen alternatibo" gisa propo-satutako irtenbideak –bizimodu zilegi alternatiboak sortzea– ingurumenaren aldetik irrazionalak direla.

GLIFOSATOA

Myanmarren, adibidez, landaketa ibil-taria egiten duten talde etnikoei egotzi zaie deforestazioa eragitearen errua, hau da, urrutiko goi lurretan elikagaie-kin batera opioa ere landatzen dutenei.

Hala ere, "drogen arazoari" aurre egiteko ezarri zen laboreak ordezteko programak eragin du gero eta lur gehia-go bideratzea kautxua eskala handian landatzeko eta beste monolabore in-dustrial batzuetarako. Eta horrek kalte sozial eta ekologikoak biderkatzea bes-terik ez du ekarri.

Garapen estraktibistak eragin di-tuen ingurumen-ondorio negatiboek gehitu behar zaizkie drogen aurkako gerra delakoaren inpaktu kaltegarriak. Horien artean daude, agrokimiko toxi-koekin egindako aireko fumigazioak, hala nola glifosatoarekin. Gainera, Ko-lonbiaren kasuan bezala, horiek de-bekatzeko egindako ahaleginek soilik eragin dute laboreak gero eta urruna-go dauden zonaldeetara mugitzea, as-

kotan babestutako eremuetara, parke nazionaletara, esaterako.

Neurri horiek ez dira batere eragin-korrak izan; izan ere, kokainaren ekoiz-pena eta kontsumoa munduan handitu baino ez dira egin urterik urte, horiei aurre egiteko erabili dituzten praktiken gainera, ingurumenarentzat kaltega-riak direnak. Beraz, drogen aurkako gerra globala amaitzeak ingurumen-onura handiak ekar litzake.

“Bide iraunkorrak eraiki daitezke drogak agroekologiaren, elikadura-subiranotasunaren, landa-langileen eta herri indigenen aldeko mugimendu globalekin lotzeko”

KALITATE HANDIA

Aldaketa batzuk abian daude drogen erregimen globalean, nabarmenenak kanabisaren inguruan. Mundu osoko gero eta herrialde gehiago ari da begi onez ikusten marihuanaren merka-tu arautua, terapeutikoki erabiltzeko edota adinez gorakoek kontsumitzeko. Halere, araututako merkatu horiek ez dute zertan ingurumenaren jasangarri-tasuna hobetu.

Erabilera medikueterako kanabisa-ren egungo arauen erregimenak, neurri handi batean, kalitate handiko eredu farmazeutikoa du oinarri eta Iparral-deko herrialde askok nahiago du inpor-tazioak ordezte, eta ikuspegi horrek *indoor* laboreak sustatzen ditu.

Hori karbono-aztarna izugarri altua-rekin lotu izan da, batez ere berokun-tza- eta hozte-sistema aurreratuei eta hazkunderako intentsitate handiko ar-giei esker. AEBetan egin berri den iker-keta baten arabera, adibidez, lau paret-a artean 28 gramo belar lehor ekoiztean isurtzen den berotegi-efektuko gas ko-purua, 26-60 litro gasolina erretzearen parekoa da.



Kanabis plantazioa
Chefchaouen herrian (Maroko),
Rif inguruko mendietan.

RAFAEL MARCHANTE / REUTERS

Ingurumenaren eta garapenaren ikuspegitik, askoz hobe litzateke He-goaldeko herrialdeetako laborari tra-dizional txikiek kanabisa ekoiztea, han klima egokia baita aire zabaleko laborantzarako.

BURUJABETZA

Droga-politikan ingurumen-justizia-ren premia handia dago, eta drogak lantzearen gaia ingurumen- eta klima-erakundearen radarrean jarri behar da. Horretarako, legez kanpoko laboreeta-



tik bizi direnen parte-hartze aktiboa behar da.

Bide iraunkorrak eraiki daitezke drogak agroekologiaren, elikadura-subiranotasunaren, landa-langileen eta herri indigenen aldeko mugimendu globalekin lotzeko. Adibideak bada, koka-tea lortzeko Bolivian koka-hosto organikoa ekoizten dutenekin egindako esperimenduak eta bidezko merkataritzako kanabis-eredu bat garatzeko Karibean egindako proposamenak.

“Garapen estraktibistak eragin dituen ingurumen-ondorio negatiboei gehitu behar zaizkie drogen aurkako gerra delakoaren inpaktu kaltegarriak”

Droga-laboreak barne hartzen dituzten sistema politikoak, legalak, ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak zalantzan jartzean, landareen erabileren kriminalizazioan edo kontsumitzaileen bizi-modu indibidualaren hautaketan fokua jartzen duen eztabaidatik atera, eta harago eraman dezakegu. Horrela, benetako ingurumen-justizia lortuko da pertsonentzat, debekatutako landareentzat eta planetarentzat. ●

Erromoko Nagusien Etxearen etorkizuna, **ziurgabe**

Getxoko Erromo auzoko Ibar Nagusien Etxeko kideek urteetan aterpe izandako eraikinean geratu nahi dute, eta urteak daramatzate beren nahiaren defentsan. Getxoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak eraikina eraitsi nahi dute, eta Romo Kultur Etxea (RKE) erabiltzea eskaini diete alternatiba gisa. Nagusien Etxeko hainbat kideren iritziz espazio horrek ez die beren beharrazinei erantzuten. Nagusiek ekainaren 24ko data zeraman kaleratze aginduari izkin egitea lortu bazuten ere, abuztuko lasaitasuna baliatuz hesitu zuen Poliziak Nagusien Etxea. Bilboko epaitegietatik geldiarazi da eraikinaren eraistea, eta epaileak zer ebatziko zain daude. Egoera horretan, hasi berri den ikasturtean jarduera eskaintza zabala egin ahalko duten ez dakite nagusiek. Egungo egoerara arte gertatutakoaren errepasoa bildu dugu lerrootan.

GARAZI BASTERRETXE

Abuztuaren 17tik metalezko hesi batek zeharkatzen du Getxoko Erromo auzoko eraikina, “lotsaren hesia” eraisketaren aurka dauden Nagusien Etxeko kideentzat. Egun hartan, herriko jaien ostean jendea oporretara joana zela eta eraikinean zaintza txandarik ez zela probesturik, Ertzaintza eta Udaltzaingoa Erromoko Nagusien Etxera gerturatu ziren. Ertzaintzak zonaldea hesitu eta goizean goiz Redenoren enpresako langileak eraisketa prestatzeko lanekin hasi ziren, bertaratutako auzokideen amorru oihu artean. Nagusien Etxeko erabiltzaileetako batzuek “ezin dut sinetsi” esaten zuten; izan ere, ez zuten uste udal gobernuak (EAJ eta PSE) epailearen agindurik

gabe hasiko zituenik eraisketa lanak. Beste batzuek, mesfidatiago, amorruez damutzen ziren bertan geratu ez izanaz, aurreko egunetan bezala zaintza txandak antolatu ez izanaz.

Arratsalde horretan bertan heldu zen eraiste lanak gelditzeko agindua Bizkaiko epaitegitik; Ibar Nagusien Etxeak goizean eskatutako erabateko zuhurtziazko neurriak onartuak izan ziren. Irailaren 9an jakinarazi zen udal gobernuak zuhurtziazko neurrien aurka aurkeztutako helegitea ez dela onartua izan eta epaileak agindu arte ezin izango dela Lope de Vega 12ko eraikina eraitsi.

Ordutik etengabeak izan dira Lope de Vega eta Kresaltzu kaleak batzen dituen izkinan egindako elkarretaratzeak

eta bestelako ekintzak. Nagusien Etxea 24 orduz poliziak kontrolatua dagoen arren, hesiaren itxura ere aldatuz joan da hilabete honetan zehar: mezuak, kartelak, puxikak eta bestelakoak jarri dituzte auzokideek, beren eskaerak adieraziz.

NAGUSIEN ETXEAN GERATZEKO NAHIA

Getxoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Nagusien Etxea eraisteko erabakiak sortu du egoera gatazkatsua. Gaur artean herriko nagusien aterpe izan den eraikina bota eta “belaunaldien arteko zentroa” eraiki nahi dute toki berean (2. eta 3. graduako menpekotasuna duten nagusientzako egoitza, eta 35 urtetik





Eraisketaren aurkako mobilizazioa, irailaren 2an.

beherakoentzako 40 apartamentu), horretarako behar duten aurrekontuaren %82,5 jaso baitute Europako Next Generation programako funtsetatik. Asmo hori tarteko, Nagusien Etxeko kideek ekainaren 24ko data zeraman kanporatze agindua jaso zuten.

Auzoan iritzi kontrajarriak daude belaunaldien arteko zentroaren proiektuarekiko; batzuek uste dute aukera ederra izan daitekeela, baina badira praktikan proiektuari hutsuneak ikusten dizkiotenak ere: besteak beste, Bizkaia mailako proiektua izanik ez duela Getxoko beharrak estaltzeko balioko; erresidentzia handiko formatu horretan erabiltzaileen zaintza egokia bermatzen ez dela frogaturik dagoela; zaila dela gazteen eta 2.

eta 3. graduako menpekotasuna duten nagusien arteko elkarbizitza bermatzea; ez dela bidezkoa gazteei profesionalek egin beharreko zaintza lanak esleitzea; gazteei pisu kopuru jakina egokitzeak ez duela Getxon dagoen etxebizitza-arazoa konpontzen. Hau da, proiektua eder eta arrakastatsu aurkeztua izan den arren, praktikan ez diela Getxoko zahar eta gazteen errealitate desberdinen beharrei erantzuten.

Getxoko Ibar Nagusien Etxea elkarrekin adierazi du ez duela proiektuaren balorazioetan sartu nahi, euren helburua ez baita Udal gobernuaren proiektu horren aurka egitea, baizik eta euren etxea babestea. Proiektu hori egiteko Getxon eraikin hutsak badirela esatera

mugatu da, Getxo II institutua izandakoa kasu –udal gobernuari proiektua bertan egitea proposatu zioten, baina erantzunik ez zuten jaso–. “Hemen belaunaldien arteko zentroak bultzatu nahi duen belaunaldien arteko harreman hori egunero eman daiteke, hau zabalik dugulako. Gu gara espazioa kudeatzen dugunak eta uste dugu leku hau Erromoko jendearen erabilerarako izan behar dela. Itzualtetako Emakume Asanbladak hemen egin zituen jardunaldi feministak, eta aurten Erromoko emakumeen bazkaria hemen ospatu da. Erromo Kantarikoak, elizakoak.... Baina udalaren helburua belaunaldien arteko harremana Europako eredu jarraituz egitea da. Hori da European saldu dutena eta horregatik

eman diete eman dieten diru-kopurua”, azaldu zuen elkarteko zuzendari Paco Ramak ekainaren 21ean ARGIA argitaratutako elkarrizketan.

Udal Gobernuak Romo Kultur Etxea erabiltzea eskaini die alternatiba gisa, baina Nagusien Etxeko hainbat kideren iritziz espazio horrek ez die beren beharritan erantzuten. Ondoko adibidea jarri zuen Nagusien Etxeko kide Rafa Martinek ARGIAri eskainitako elkarrizketan: “Eguneko azken gimnasia klasea mugikortasun murritzua duen jendearentzat da, batzuk gurgildun aulkian etortzen dira, beste batzuk lagunduta... RKera heltzeko igogailua hartu behar dute eta egunen batean funtzionatzen ez badu, ezingo dira sartu”. Horrez gain, salatu dutenez, RKen nagusientzako dagoen espazioa Nagusien Etxean dutenaren herena baino ez da, eta ez dute eurentzako tabernarik ez lorategirik, leihoak zabalitzeko eta espazioa aireztatzeke bedelari giltza eskatu behar diote... Argi dute: espazio horrek ez du euren autogestioa sustatzen eta ez da egokia Nagusien Etxeko ekintza guztiak egin ahal izateko, ezta auzoko nagusi kopuruari eta euren beharrei erantzuteko ere.

NAGUSIEN ETXEAN GERATZEKO URTEETAKO BORROKA

Lope de Vega 12 eraikina herriarentzako donazioa izan zen, baina ondoren mojek eskuratu zuten. Azken horiek, 1980an, eraikinak bota eta babes ofizialeko etxeak eraikitzea eskatu zuten, baina auzoaren erantzuna –Auzokideen Elkartea barne– aurkakoa izan zen. Ez zitzairen horretarako baimenik eman, eta erosketarako negoziazioetan hasi ziren; izan ere, udalak ikusi zuen ekintzak egiteko udal ekipamendu beharra zegoela. Alderdi batzuek uste zuten herriaren donazioa izandakoa mojek itzuli egin behar zutela, baina azkenean berriro erostea erabaki zen. 41 milioi pezetatan erosi zen, %50 Diputazioak ordainduta. 1987ko azaroaren 21ean Hogar de Día inauguratu zen bertan (hala zuen izena Ibar Nagusien Etxea bilakatu aurretik). 2001ean Ibar Nagusien Etxea Elkartea sortu zen eta udaletxearekin adostu zuten zentroa elkartek kudeatuko zuela.

Ordutik, planteamendu desberdinak tarteko, hainbat plan egon dira eraikina birmoldatzeko, baina beti baldintza batekin: elkartea denboraldi batez beste leku batera joan behar izango bazen ere, berriro eraikinerantz itzultzeko aukera bermatzea. Alabaina, 2013an

udal gobernuak elkarteari komunikatu zion RKera lekualdatuko zituztela, eraikina birmoldatzea oso garestia zelako (6 eta 8 milioi euro artean). Jakinarazpen horren aurrean, 2013ko irailaren 27an elkarteko kideak bilera nagusian bildu ziren, eta Lope de Vega 12ko eraikinean geldituko zirela erabaki zuten. Bertan gelditzeko eskubidea defendatzen hasi ziren: 2015ean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak egindako proiektu bat aurkeztu zion elkartek udal gobernuari; bertan esaten zen Etxe Merkeak, Nagusien Etxea, Euskaltegia eta eliza Erromoko herrigunea direla eta eraitsi baino, babestu beharko lirartekeela, euren azpiegitura egoera onean baitago eta herriaren ondare baitira.

2016an Nagusien Etxearen eraisketaren aurkako plataforma sortu zen. 2017an Ibar Nagusien Etxeak erreferenduma egin zuen bazkideei galdetzeko ea zer nahiago zuten: bertan gelditu edo RKera joan. Bileretara normalean 100-120 pertsona joan ohi ziren, baina egun horretan 540 pertsona joan ziren bozkatzera eta %84ak (453 pertsona inguruk) Lope de Vega kalean geratzearen alde bozkatu zuten. Urrian udaleko osoko bilkuran eztabaidatu zen gaiak eta udal gobernuak 11 bozek eraikina eraistearen alde egin bazuten ere, oposizioko 14 bozek eraikina ez eraistearen alde egin zuten. Elkartek udal gobernuari eskatu zion erabakiari kasu egiteko, euren programa elektorala inposatu ordez. Baina eskaerari entzungor, bere programa betetako zuela adierazi zuen azaroan udal gobernuak, alderdi bozkatuenak izanik horretarako eskubidea zutela argudiatuz. Gauzak horrela, 2018ko maiatzean Nagusien Etxeko ileapaindegia, fisioa eta podologo zerbitzuak RKera eraman zituzten, aurretik abisurik eman gabe, nahiz eta elkartearekin urte amaiera arte kontratua sinatuta izan. Elkarteko kideen arabera, hortik aurrera udalarekin hainbat oztopo izan dituzte, beren jarduna aurrera eramatea zailduz.

2018an RKEko hirugarren solairuan nagusientzako espazioa zabaldu zuten, eta elkartek salatu izan duenez, Nagusien Etxeko deiak RKera desbideratu zituzten, bertatik Nagusien Etxearen izenean erantzuteko deiei. Salatu dute, baita ere, paraleloki elkarteko bazkideei telefono deiak egin zizkietela, Nagusien Etxea RKera lekualdatu zela esanez. Egoera horretan, Nagusien Etxeko kideek eraikina mantentzeko itxialdia egin zuten –Udaltzaingoa itxialdiko pertsona

IBAR NAGUSIEN ETXEO ARTXIBOA



guztiak identifikatu zituen-. Itxialdiaren aurrean, udalak adierazi zuen gehiengorik gabe ez zuela eraikina eraitsiko, eta ondorioz, elkartek erabaki zuen itxialdiari amaiera ematea eta eguneroko lanean jartzea indarrak. Ordutik 2022ko abuztuaren 17ra arte espazioa zabalik egon da, udal langilerik gabe, langile boluntarioen lanari esker.

AMORE EMATEKO ASMORIK GABE

Erreportajea osatzeko iturri izan diren bazkideek jakinarazi digute iluna eta gezurrez betea izan dela urte hauetako prozesua. Lekua “usteltzen” utzi dutela esaten dute. Ali de Celis Iglesias-en hitzetan, espazioa elkarlanean zaindu eta mantendu dute, eta beren poltsikoetatik ordaindu dituzte kontratatutako langile profesionalak: “Adibidez, iraganean tabernako langileek ez zituzten zerbitzuak ordaindu behar, menua nagusiek ordaindu ahal izateko prezioan eskaini ahal izateko. Baina tabernaren kargu egin zen azken familia heldu zenerako udal gobernuarekin genuen harremana ez zen ona, eta bat-batean esan ziguten gasa eurek ordaindu behar zutela. Oztopoak jarri izan dizkigute etengabe, nekatu gintez, baina ez gara nekatu”.

Amore ematek urruti, peto horia soinean, nagusiek protesta egiten jarraitu dute Erromoko kaleetan. Bi urte eman dituzte goizero ordu erdiko elkarretaratzea eginez Areetako Xake Plazan, musika jarrita eta borobilean buel-



Eskuinetara, abuztuaren 17ko argazkia, Poliziak Nagusien Etxea hesitu zuen egunekoa. Ertzaintzaren atzean, oraindik hesitu gabe, eraitsi nahi duten eraikina. Ezkerretara, irailaren 14an RKE aurrean egindako elkarretaratzea.

taka, euren aldarrikapenekin espazioa betez. Borrokan jarraitzeko erabakimen hori are nabarmenago adierazi zuten kanporatze aginduak zehaztutako datan: bazkaria, txalaparta tailerra, kontzertua... egun osoko egitaraua antolatu zuten ekainaren 24rako, eta eraikina hutsik geratu ez zedin, zaintza txandak antolatu zituzten adin ezberdinetako auzokideekin. Eta abuztuaren 17an Polizia agertu eta eraikina hesitu artean, hainbat izan dira kalea bete eta protesta bistaratzeko udan egindako ekintzak: igel-toka txapelketa, bazkari herrikoa, bingoa, dantzaldia, 75 urtetik gorakoen bazkaria, liburu aurkezpenak... Ekintza horietan ageriko egin da hainbat herri-tarrek Nagusien Etxeari adierazitako babes. Izan ere, azken herri galdeketa 1.500 pertsonatik %98ak eraistearen aurka bozkatu zuen, eta hilabete batzuk lehenago eraikina mantentzearen aldeko 4.000 sinadura batu zituzten.

ZALANTZAZ BETETAKO ETORKIZUNA

Ikasturte berria hasi den honetan arduraturik daude elkarteko kideak, ez baitute ikasturteari ekiteko eta harreman-tzeko lekurik. Adierazi dutenez, gauzak horrela, nagusi askok RKEra joatea beste aukerarik ez dute tailer edo ekintzak egin ahal izateko.

*Ibar Nagusien Etxeko
antolatzaile eta erabiltzaileek
ez dakite aurten euren
proposamenak aurrera
eraman ahal izango dituzten.
Baina irribarrez esan digute
ez direla etxean geratuko,
ez dietela euren gorputzei
lokartzen utziko*

Santi Aristimuño, mobilizazioetarako kartoietan marrazkiak egiten eta esaldiak idazten dituen elkarteko bazkideak, aurreko ikasturtean Nagusien Etxeak eskaintzen zituen ekintzen zerrenda erreparatu du: dantzak, tai-chi, pilates, memoria tailerra, zahartze aktiboa, euskara, marrazketa, abesbatza, patchwork, puntu eta kakorratz-lana,

heziketa fisikoa, liburutegia, hitzaldiak, tertuliak lorategian, billar saioak, bingoa, zinema, mendi irteerak, josteko ikastaroa, igel-toka eta petanka txapelketak. Eskaintza zabal horri esker, 86 urteko Ane Servando bazkideak, adibidez, 80 urte zituela deskubritu zuen margolari-tzarekiko bere pasioa. Orain arduraturik adierazi digu ez dakiela zelan jarraituko duen koadroak marrazten. Berarentzat garrantzitsua da elkarri lagunduz taldean marraztea, eta horretarako espazio egokia izatea, bentilazio egokia duena margoen kutsaduratik babesteko.

Udal gobernuari eskatu diote eraikina berriro zabaltzeko, aurkeztutako proposamenen tailer horiek mantentzeko, eguneko zentroa gehitzeko eta nagusi eta gazteen arteko tailerrak gehitzeko. Halere, Ibar Nagusien Etxeko antolatzaile eta erabiltzaileek ez dakite aurten euren proposamenak aurrera eraman ahal izango dituzten. Ez dakite aukera izango duten elkarrekin abesteko, josteko, margozteko, gorputzak mugitzeko... Baina irribarrez esan digute ez direla etxean geratuko, ez dietela euren gorputzei lokartzen utziko, Kresaltzu eta Lope de Vega kaleen arteko izkinan edo RKE eraikinaren aurrean zein auzoko edo zein txokotan biltzen jarraituko dutela, euren etxearen alde borrokan, Nagusien Etxean sortutakoa piztuta mantenduz. ●

“ ”

Zahartuta dagoen gizarte batean bizi gara, baina fokua ez da adinekoengan jartzen

Xabier Monreal

Babestu Elkarteko eta Zaintza Babesten federazioko kidea

Irailaren 17an manifestazio jendetsua egin zuten Madrilén, *Beste zaintza eredu bat posible da* lemapean. Estatuko Plataforma osatzen duten zaharren egoitzetako senideen elkarteek deitu zuten, tartean Zaintza Babesten federazioak. Instituzioei zein herritarrei argi utzi diete zaintza ereduak porrot egin duela, eta aldaketa beharrezkoa dela. Adineko pertsonen eskubideak aldarrikatu dituzte, eta gogorarazi dute borroka jendarte osoarena dela. Protestan egindako eskakizunei buruz mintzatu zaigu Monreal.

LEIRE ARTOLA ARIN DANI BLANCO

Zergatik da garrantzitsua momentu hau manifestazioa egiteko?

Ikusten dugu pandemiak azaleratu dituela zaharren egoitzetako hainbat arazo, eta guk pentsatzen genuen oso nabarmena zela eredu aldaketa bat sortu behar zela, baina ikusi dugu gauzak ez direla aldatu. Gogoratu behar diegu politikariei orain daukagun ereduak ez duela balio; pandemiak agerian utzi du erresidentzietako hildakoen kopurua, bizi izan dituzten baldintzak... Gu baino okerrago egon dira konfinamenduan. Gainera, horrelako erresidentzietan daukaten dependentzia oso altua da, eta behar duten atentzioa, emozionala, senideena... falta izan zaie.

Autonomia erkidegoetako gobernuetara zuzendu zarete, datozen hilabeteetan osatu beharko dituztelako zahar etxeen

kudeaketarako arau berriak.

Espainiako Estatuko gobernuak saiatu da beste eredu bat sortzen, baina erresidentzien eskumena erkidegoetako gobernuek dute. Espainiako Gobernuak, eredu aldatzeko saiakera horretan, akordio txiki batera ailegatu da erkidego batzuekin. Baina eredu horrek ez ditu betetzen guk eskatzen ditugun baldintzak, nahiz eta aurrerakoiagoa omen den. Guk [elkarteek] hausnartu dugu urte hauetan eta saiatu gara beste eredu bat sortzen, beste erkidegoetako eta Europako herrialdeetako ereduarekin erkatuta.

Zer falta du Espainiako Gobernuak proposatutako ereduak?

Ea nola laburbiltzen dudan! Hasteko, parte hartzearen arloan dena dago egiteko. Erresidentzietan ez dago eredu bat familiak parte hartzeko. Legeak printzipioak ezartzen ditu, baina gero ez dago

ziurtaturik. Egoitzetan egon behar da parte hartze kontseilu bat, non familiak ere egon behar diren; eskoletan kontseiluak dauden bezalaxe.

Instituzioetan ere parte hartu nahi dugu, Elkarrizketarako Mahai Zibil batean. Estatuko Mahai Zibilean eman dигute ahotsa Plataformari eta guri, baina EAEn ez dugu aukerarik. Begira zer-nolako kontraesana den: estatuan gonbidatzen gaituzte, eta beraiek ez dute horren eskumena, eta erkidegoetan eskumena dute baina ez dago bermatuta gure presentzia. Eusko Legebiltzarrean eta batzar nagusietan egon gara eredu aldaketa eskatzeko, eta gogoratu diegu parte hartzearena; bai, sortu dute Mahai Zibil bat dependentziaren gaia lantzeko, baina gu ez gaude gonbidatuta horra. Elkarrizketa pribatu bat izan genuen Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendariarekin [Marian Olabarrieta], eta



Euskadiko hiru elkartek eskatu genion formalki parte hartzea; ez digu erantzun, eta orain dela urte bat izan zen.

Badago hirugarren parte hartze bat: legez, adineko pertsona bakoitzari egin behar zaio Banakako Arreta Plan bat (BAP) egoitzetan. Plan horretan familiak parte hartzea inportantea da, eskakizunak eta beharrak baloratzeko: garbiketa, medikazioa... Baina normalean familiak ez dakite existitzen dela, ez delako jendarteratzen.

“ ”

***Adinekoek euren
kabuz ezin badute
parte hartu,
norbait egon behar da
eurak ordezkatzeko***

Zertan lagundu dezake parte hartzeak?

Eskoziako adibidea esanguratsua da. Egoiliar baten senideak parlamentuan eskatu zuen lege bat behar zela, ziurtatzeko pandemia eta katastrofe kasuetan egoiliarrarekin beti egon behar dela familiako erreferentziazko norbait, aurrez aurre, atentzio emozionala bermatzeko; zeren ikusi baitzuten ondorioak oso latzak zirela. Anne's Law legea [2021] egiten ari dira horregatik.

Begira parte hartzea nola joan den: behetik gora. Hemen ez dago ezer ez. Beste pandemia bat balego, zer gertatuko litzateke? Ikasi dugu zeozer?

Zuen eskarietan azpimarratzen duzue ikuskarien eta langileen kopurua.

Ikuskariei dagokienez, hainbat kexa egiten ditugu familiartekook, baina kuxa batean geratzen dira. Ikuskaritza indartu behar da. Bizkaian, adibidez, zortzi ikuskari bakarrik daude gizarte zerbitzu guztietarako. Gainera, bat-batean eta abisatu barik etorri behar dira, ikusteko arazoak daudela, eta ez da hori egiten.

Bestalde, langileen baldintzak ez dira onak, eta zaintzaileak ez badi-tu baldintza onak, horrek ondorioak dauzka gure guraso eta familientzat. Bat gatoz langileen borroka eta eskakizunekin. Ez dira ailegatzen egin behar den guztia egiteko, azkar eta txarto egin behar dute; esku eta begi gehiago beharrezkoak dira, kalitatezko arreta duina emateko. Elkarrekin harreman ona daukagu langileekin, eta guk ez dakizkigun gauza asko berareiei esker dakizkigu, lekuko zuzenak direlako.

Gure eskaera haxe da: egoiliar bakoitzak egunean bost orduko arreta zuzena izatea, bi goizean, bi arratsaldean eta bat gauean. Horrek esan nahi du egunean zehar behar dela geriatriako laguntzaile bat lau egoiliarreko. Eta oso urrun gaude hortik, egungo legearekin ez da betetzen.

Sektorearen pribatizazioa ere gogor kritikatu duzue.

Batzuetan hemengo politikariek esaten dute pribatua eta publikoa elkarrekin egon behar direla. Baina pribatizazioa itzela izaten ari da, eta publikoa galtzen ari da. Araban oso nabarmena da, baina Bizkaian ere %80-90 inguru pribatua da. Guk pentsatzen dugu osasun arreta guztiz publikoa izan behar dela; gure eskubidea da. Zahartzen ari da gure populazioa, bada, umeentzako pediatriak dauden bezalaxe, pentsatu behar dugu geriatriako osagile bereziak egon behar direla adinekoentzat. Gure elkarreko medikuak kalkulatu du Osakidetza aurrekontuaren %1arekin geriatriako sistema hori posible litzatekeela, eta biztanle kopuru jakin bakoitzeko geriatriako laguntzaile publiko bat bermatu ahal litzatekeela.



“ ”

Langileen baldintzak ez badira onak, ondorioak daude egoiliarren zaintzan

Pribatizazioak zein ondorio eragin ditu?

Negozio bat da, eta negozio baten helburua da dirua irabaztea, eta hori kontraesan dago legearekin: legeak dio arreta soziosanitarioa unibertsala eta subjektiboa izan behar dela eta, beraz, ezin da negozio bat izan. Betetzen omen dute legea... baina ondorioa argia da:

baldintzak txarrak direla. Janaria, ekipamenduak zaharkituta daudela, langileen kopurua oso-oso minimoa dela, eta abar.

Salatu duzue ez dela ikerketarik egin COVID-19aren pandemiako ondorioak aztertzeko: milaka egoiliarren heriotza eta praktika desegokiak zergatik onartu diren jakin nahi duzue. Zertan dago orain?

Salaketak egin dira, baina justizia astiro-astiro doa. EAEn egon dira kasu batzuk non hildakoa erraustuta jaso dutenez, kasua itxi duten; “ez dago ezer ikertzeko”. Beste kasuren bat irabazi da: Nafarroan orain egon da kasu bat non egoiliar batek salaketa jarri zuen eta lortu duen zigortzea. Halere, elkarte moduan historia asko jaso ditugu pandemia garaian, gauza izugarriak ikusi ditugu. Esaterako, ospitalera lekualdatzea behar zuten pertsona batzuk erre-



sidentzietan geratu zirela. Ez dugu uste aztertuko denik pandemian gertatutakoa. Zeozer ikasi dugu? Ez dakit. Gizarteak ere egin behar du hausnarketa.

Nola helarazi herritarrei adinekoen eskubideak borrokatzea guztien eskubideen alde egitea dela?

Elkartek egiten du lana alde horretatik: jardunaldi teknikoak egin ditugu, eta kalean jarraituko dugu arazo hau azalerrazten, baina zaila da. Bilbon hainbat manifestazio egin ditugu pentsionistekin. Oso harreman ona dugu haiekin, zeren, nahiz eta batzuk oso ondo egon, ikusten baitute arazoa dagoela. Denon erronka da, ez da bakarrik nire gurasoen kontua, nire etorkizuna ere bada. Nik eredu hau ez dut ikusi nahi. Baina erresidentzietan senitartekoek ere beldur handia dute, pentsatzen dutelako borrokatzen badute plaza kenduko dietela.

Komunikabideen papera ere garrantzitsua da, hedabide publikoek egin behar dute lana; gai hau eztabaidetan egon behar da, zeren populazioa zahartuta baitago. Larria da izan dugun egoera. Non geratzen dira txarto pasatu dutenak? Fokua ez dago jarrita adinekoengan, baina zahartuta dagoen gizarte batean bizi gara.

Jakina da egoiliar batzuek besteek baino mendekotasun handiagoa dutela, baina, oro har, senideei zer eskakizun egiten dizkizute?

Zaila da, zeren haietako asko kognitiboki ez baitaude ondo. Nire aitak, adibidez, alzheimerra dauka; ez daki nor naizen, ez daki zer jan duen gaur, zer kontatuko dit? Horregatik da garrantzitsua or-

“ ” Etxeko laguntza da instituzioek bultzatzen dutena, haientzako errazagoa baita; zuretzat da arazoa

dezkarri bat edukitzea, autonomo gutxi dagoelako erresidentzietan. Adibide bat jartzearen, Bizkaiko Aldundiak 2020an egindako inkestaren kasua. Familiei galdetu ziguten ea zer pentsatzen genuen erresidentzien kalitateaz, guk hara sartu ezin genuen garaian. Emaitzak ezin hobekak izan ziren, 8tik gorako notarekin. Nola erantzun zuten dena ondo zegoela, gu ezin baginen sartu? Han daudenek esango dute, daukaten dependentziarekin, ondo doala dena? Gainera, galdetzen zuten ea egoiliarrek zergatik sartzen ziren erresidentzietan, eta soilik %1,2k erantzun zuten euren nahi zutelako zela. Oso esanguratsua da; galdeketa emaitzak oso onak badira, eredu oso ondo badago, zergatik erabakitzen du %1,2k bakarrik hara joatea? Kontraesan izugarria da, inkesta ez dago ondo.

Erresidentziara eramaten ditugu, guk ezin dugulako gehiago egin. Elkarteko denok pasa ditugu fase guztiak: etxean eduki, norbait kontratatu, eguneko

zentzora eraman, eta azkena da erresidentzia. 3. mailako mendekotasuna dutenean arreta osoa behar dute. Etorkizuneko eredu pentsatu behar dugu: erresidentzia txikiak ala handiak? Nik uste dut txikiak izan behar direla, eta tokikoak, erabaki ahal duzuna zure auzoan geratzea. Nire aita hemendik pasatzen da [bere auzoko parketik, erresidentziaren alboan] eta aurkitzen ditu bere bizitzan topatu dituen lagun berberak.

Etorkizuneko eredu horretan nahiko zenukete etxeko laguntza bultzatzea? Hori da instituzioek bultzatzen dutena, haientzako errazagoa baita; zuretzat da arazoa. Etxean? Bai, ezin hobeto. Baina horrelako dependentziarekin baliabide asko behar dira eta familiak liberazioa behar du. Sistema osoa aldatu beharko litzateke; batzuetan errazegi hitz egiten dugu horrelako ideiei buruz. Utopikoa da eta zaintza eredu berri bat sortzerakoan erdigunean egon behar du ideiak, baina letra txikia idatzi behar zaio. Zein baldintzatan, igogailurik gabeko etxebizitzekin zer egin, horrelako demen-tziarekin behar duten medikamentu eta osasun tratamendu guztiak nola eman, eta abar. Zaintza ez da zortzi orduko lana, 24 ordukoa da.

Teknologia berriak sartuko dituztela ere diote. Oso ondo daude teknologia berriak, baina uste dut adinekoen eskubidea dutela giza harremanak sortzeko. Hori ziurtatu behar da, nahitaez, pertsonak behar ditugu. Teknologien laguntza izan dezakegu, baina ezin dugu oinarritu etxeko sistema bakarrik gailu edo robotetan. Hori gizartearen porrot handia izango litzateke. ●

ASTEKARIA

ARGIA / URKO APAOLAZA

Ikasturte berriarekin aurpegi berriak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Batzuk joan eta besteak etorri. Bizitzaren legea ere horixe dela esan dezake inork, baina hain filosofiko jarri aurretik kontatu nahi dizuet nola aurkezten den iraileko panorama astekarian. Aldaketa bat baino gehiago izan ditugu uztailetik hona, irakurlerik finena jabetuko zen honezkero. Pello Zubiriak pasa du Net Hurbilen testigua –kontatu zitzaizuen xeheago aurreko astekari batean-. Ez da ordea mugimendu bakarra. Zer da, irakurle, hemendik aurrera topatuko duzuna?

"Panorama" atalean Gorka Bereziartuak lehenik (*Fauna publikoa*) eta Santi Leonék ondoren (*Gaizki erranka*) abiatutako sailari jarraipena emanez hiru urteko ibilbidea egin duen Aritz Galarragak (*Humanitatearen une gorenak*) osatu du bere zikloa, eta lehendik ere ARGIA kolaboratu izan duen Uxue Apaolazak beteko du hutsunea hemendik aurrera, *Materialismo histerikoa* izenarekin. Sail berezia da, definitzen oso erraza ez den zerbait. Analisia, iritzia... Gaiaren inguruko errepasoa egiten ari nintzela irakurri dut Galarragak orain hiru urte –Komunitatean bere aurkezpena egin genuenean– erantzun zidana, eta definizio ona iruditu zait: "Aurkituko ditu, izenburuak

ondo dioen moduan, humanitatearen une goren batzuk, alegia, eguneroko bizitza arruntaren gorabehera ezdeusak, gauza txikiak, aktualitatearen diktaturatik urrundu, eta inguruko errealitateari begiratuko diotenak. Ezinbestean agertuko dira hala irakurketak, lagunartek, kotidianitateak eskaintzen dizkigun sorpresa atseginak (eta ez hainbeste)". Horixe izango da Uxue Apaolazaren lana.

Iritzietan, iazko kurtsoan utzi zuten urte askoan aritu diren Imanol Alvarezek eta Eneko Olasagastik, baita June Fernandezek eta Laura Mintegik ere. Hasi, berriz, Hiruki Larrosa, Tere Maldonado, Arantza Gutierrez eta Andrea Bartolo hasi dira.

"Argi-Kontra" da aldaketak dituen beste atala. Gai zehatz bati buruzko galdera/erantzun motz eta zorrotzez osatzen den elkarrizketa. Leire Regadasen eta Ander Perezen sinadurak botako ditugu faltan eta ordezkatzeko dituzte Izar Mendigurenek eta Olaia L. Garaialdek. Zorteko dira Unai Brea, Saioa Baleztena eta Aitziber Zapirainen lanak gustura irakurtzen dituztenak, gurean jarraitzen baitute.

Ongi etorriak denoi eta zuk, irakurle, goza ezazu buru eta esku berriez. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Euskal Herri mailan askatasunez informatzeagatik, herri mugimenduen adierazpenak jasotzeagatik, euskara hutsean egiteagatik, feminismotik datozen gaiak lantzeagatik, ingurumenaren aferak bereziki ikusgai jartzeagatik..."

Erroetako Rebeka

"Hedabide independenteak behar ditugulako"

Donostiako Ana

"Adierazpen askatasunaren izenean eta ARGIAren independentzia sostengatzeko. Aspaldi egin behar nuen, orain egin dut eta pozten nau"

Ziburuko Luxi

"Prensa independentea eta tokapelotasa egotea beharrezkoa delako"

Zarauzko Joseba

"Ezagutzen dudun euskarazko kazetaritza egitasmo libreena delako"

Zumaiako Jokin

"Lehen sektoreari buruzko artikulua interesgarriak aurkitzen ditudalako eta euskaraz argitaratzen delako"

Anizko Aitor

XENDARINEKO AHIZPAK

URRIAK 8 / UDAZKENEKO UZTA
OHIANARTIA ETXALDEA
IBARLA, BAXE NAFARROA



IZEN-EMATEAK:




BASERRIARI BISITA + HAMAIKETAKOA + KONTZERTUA + BAZKARIA

SARRERA: 30€ // 6-12 URTE : 15€ / 0-6 URTE: DOAN · Izen-emateak: www.ehkolektiboa.eus

Antolatzailea: 

Laguntzaileak:  **iametza**  **ARGIA**



Independência ou morte?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

São Paulo, 1822ko irailaren 7a. Hiraren kanpoaldean, Ipiranga ibaia-
ren ertzean, Petri Bragançakoa
Portugalgo printzeak Brasilen indepen-
dentsia aldarrikatu zuen, “*Independência
ou morte*” oihukatuz. Hasieratik, Hego
Amerikako gainerako herrialdeen inde-
pendentsia prozesuarekin alderatu zuten
Brasilgoa; han, prozesu bateratu, baketsu
eta hitzartua izan omen zuten, monarkia
konstituzionalera eraman zituen. Auzo-
ko herrialdeetan, aldiz, gerra, kaosa eta
errepublikazaletasun anarkikoa besterik
ez zuten ikusten. Baina historiografiak
geroz eta nabarmenago jarri ditu zalan-
tzan prozesuaren ezaugarri horiek.

Metropoliarekiko independentzia
politikoa zalantzan jartzeko modukoa
da aldarriaren protagonistari begiratu
hutsarekin. Petri Brasilgo lehen enpe-
radore izendatuko zuten urte horretan
bertan eta, tarte batean, Portugalgo erre-
ge ere izango zen –alaban abdikatu zuen
arte, praktikan agintean jarraitu zuen
arren–. Beraz, Petri IV.a Portugalgoa eta
I.a Brasilgoa izan zen batera.

Ekonomikoki ere europarrekiko men-
pekotasuna ezin izan zuten astindu. Bra-
gançatarrak –eta, ondorioz, brasildarrak–
zorretan zeuden Britainia Handiarekin,
diplomaziaren bidez prozesuan laguntza
eskaini zielako. Britainiarrek lehentasu-
nezko baldintzak eta monopolioak lortu
edota berretsiko zituzten, brasildarren
merkataritza interesen kaltetan.



MUSEU PAULISTA

Independência ou morte! edo Ipirangako aldarria (Pedro Américo, 1888).

Bestalde, inguruko beste herrialde
batzuetan odol gehiago isuri zen arren,
Brasilgo prozesua ez zen guztiz bake-
tsua izan. 60.000 soldadu inguru mobi-
lizatu zituzten eta 3.000 hildako baino
gehiago eragin zituen gatazkak.

Eta independentzia metropoliarekin
hitzartu bazen ere, brasildarren kaltetan
izan zen nabarmen. Portugalak 1825eko
abuztuan aitortu zuen Brasilen indepen-
dentsia, itun baten bidez. Portugali ez
zion inolako baldintzarik ezarri hitzar-
men horrek; aldiz, brasildarrek, kon-
kistatuek, alegia, kalte-ordainak ordaindu
behar izan zizkieten konkistatzaile izan-
dakoei. Horrek, Britainia Handiarekin
sinatutako baldintzei erantsita, herrial-

dea jaio berritan zorpetzea eragin zuen.
Umiliazio puntu bat ere bazuen itunak,
ez baitzuen aitortzen brasildarrek be-
raiek independentzia lortu zutela; Por-
tugalek Petrirekiko izandako ongintza-
ko keinu bat izan zela jasotzen zuen.
Horregatik guztiagatik, José Honório Ro-
drigues historialariak “kontrairaultza”
detu zion prozesuari.

Independentziaren bigarren men-
deurrenak oihartzun txikia izan du, hein
batean beste kezka batzuen itzalean ge-
ratu delako, herritarrek eta agintariek
urriaren 2ko hauteskundeetan baitute
gogoia. Baina baita ere, 200 urte atzera
eginda, ospatzeko arrazoi handirik ez
dutelako topatzen. ●



GRANGER BILDUMA

Etruriarren itzal luzea

2017an arpilatu gabeko hainbat hilobi
etruriar berantiar topatu zituzten Civi-
tella Pagnico herrian (Toscana, Italia).
Hilobiek 2.200 urte dituzte eta, beraz,
erromatarren konkistaren ondoren
etruriar kulturak zenbateraino eutsi
zion neurtzeko aukera eskaini diete
Buffaloko Unibertsitateko arkeologoei.
Bost urteko lanen ondoren, hildakoekin

batera ehortzitako objektu ugariak es-
ker (apaingarriak, burdinazko tresnak,
zeramikak...) eta ehorzketa erritualei
erreparatuta, etruriarren eraginak uste
baino gehiago iraun zuela ondorioztatu
dute. Alessandro Sebastianini arkeolo-
goaren iritziz, “osmosi kulturalaz hitz
egin beharko genuke, menpekotasunaz
baino”. ●



izan bidea
ibiltarien sarea

URRIAK 8 DONOSTIA

11:00 · Bulebarra
Azken km-ak

12:00 · Pio XII
Manifestazioa

15:30 · Ilunbe
Jaialdia

**Belako · Rotten XIII · Esne Beltza
Su Ta Gar · Zea Mays · Liher · Sua
Doctor Deseo · Eñaut Elorrieta
Josu eta Gari (Hertzainak) · Dupla
Andoni Oilokiegi · Trikidantz
Ttek elektrotxaranga · Porrotx
Maialen Lujanbio · Amets Arzallus**

Laguntzaileak

naiz: berria  ARGIA ahötsa

Whamaika

hala bedi
ARABATU KONGIKATZUL LIBREZ

 bosqueleñi



**Sarrerak
salgai**

→ sare.eus/urriak-8

TXIKORIA ETA OSTERZURIA SALTSA MIKATZETAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Edari ederra da txikori ura, eta osasungarria. Txikoria edan bezala jan daiteke. Jakia ere oso ona omen da, osagarritsua. Txikoriatar gehiago ere bada. Zaharrak dira aipamenak: Aristophanes, Horazio, Plinio eta abarrenak, eta itxuraz Egipto zaharrean ere lantzen zituzten, entsalada gordinetarako belar mikatz gisa; gutxi gorabehera K.a. 1500. urteko Antzinako Egiptoko idatzi mediku zaharrenetarikoa den *Ebers* papiroan aipatzen da. *Cichorium* generoan, batez ere bost erabiltzen ditugu hemen sukaldean.

Kafearen ordezkio edo aparteko edari gisa hartzen dugu txikoria (*Cichorium intybus* var. *sativum*), bere sustraiak ezpaldu, erre eta ehotu. Txikoriaren beraren barietateak dira “endibia zuria” esaten dioguna (*Cichorium intybus* var. *sativum*) eta “endibia gorria” (*Cichorium intybus* subsp. *foliosum*). “Bruselako txikoria” ere esaten zaio; agi danean, han jabetu ziren erre gabeko sustraiak ilunpetan hostoaren gainean hostoz osatutako

kimu berri zuri-zuriak ematen zituztela, eta bere zurian mikatzasuna ahulduta, jateko oso gozoak direla. Entsaladan jaten da, gordinik, gehienetan. Txikoria entsaladatarako edo egosteko barazki berde gisa ere ekoizten da, eta Nafarroan neguko barazki preziatua da. Hura ere *Cichorium intybus* espeziekoa da.

Txikoriaren generokoak dira baita ere osterzuriak, eskarolak. Hor bi multzo ditugu: osterzuri kizkurak (*Cichorium endivia* var. *crispum*) eta osterzuri lisoak (*Cichorium endivia* var. *latifolia*). Osterzuriak garai batean neguko entsaladak atontzeko erabiltzen ziren, urazak (*Lactuca sativa*) baino hobe eramaten baititu hotzak. Gaur egun, urazetatik eta osterzurietatik, bi multzoetatik dugu eskutera urte osoan.

Ez dakit nondik datorren “osterzuri” izena. Agian ahalik eta zuriena jateko ohituragatik? Ahasabaian al baita eta dasta mikatz finena sortzeko zuritzen den



barazkietako bat da osterzuria, kardua-ekin (*Cynara cardunculus*), urazarekin, apioarekin (*Apium graveolens* var. *dulce*), porruarekin (*Allium porrum*), eta abarrekin batera. Horretarako argia kentzen zaio eta berdea dena zuritu egiten da.

Mikatzasuna ona da. Kultura askotan lotzen dira barazkien mikatzasun hori eta osasuna. Bere mesedeak dira digestiorako lagungarria izatea, eta txikori eta osterzuri jende horrek dituen mineralen eraginez, diuretikoa izatea. Lehengusua dute txikoria-belarra (*Taraxacum officinale*), zenbaitek “pixa-belarra” esaten diona. Pixa eginarazlea, diuretikoa, alegia. Frantsesek “*pis en lit*” esaten diote, pixa ohean... ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba
Sagar bilketa hastekotan gaude eta muztioa egiteko asmoa dut. Litroko beirazko botila batzuk erosi ditut. Zein da, zure iritziz, modurik onena muztioa botila horietan kontserbatzeko? Nola egin nezake “Baño maria” botila mota horrekin? Ba al dut etxean beste modu hoberik muztioa botila horietan kontserbatzeko?

Joanes Etxegoien

Ez naiz gai horietan espezialista baina ezagutzen dudana azalduko dizut. Kontserbatzeko tenperatura jakin bat harrapatzea eta horretan zenbat denbora mantentzea da gakoa, bakterioak hiltzeko. Errazena pasteurizatzeke makinatxo bat eskuratzea duzu (baserritarren kooperatibetan alokatzen dituzte). Horrela botila horietan sartu aurretik muztioa 75-80 gradu artean jartzen da eta zuzenean bete eta taparekin itxi egiten da. Tenperaturak garrantzi

handia du: tenperatura bajeetan muztioa freskoagoa izango da, fruta gustu handiagokoa. Tenperatura handiekin konpota gustua hartzen du.

Beste aukera zeuk aipatu duzun Maria Bainua da. Horretarako botilak muztioz bete, ondo itxi eta uretan sartu behar dira. Gero ur hori irakiten jarri eta muztio guztia eraman behar da tenperatura horietara. Botilaren barruko likido osoa berotzerako konpota gustu hori hartuko du.

ASPILLA

BASERRIKO ERRELEBOA HARTU DUTEN
BI AHIZPEN PROIEKTUA ANDOAINENGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela hamar urte pasatxo hartu zuten Amaia eta Nerea Arsuaga Etxebeste ahizpek Andoaingo baserrian barazki ekoizpena abiatzeko erabakia. “Baserria zaharberritzen ari ginela, ohartu ginen lursailak utziak genituela eta egoera txarrean jartzen ari zirela”, kontatu du Nereak. Gurasoek urteetan txukun mantendutako eta zaindutako lurak gainbeheran ikusteak amorrarazi egin zituen ahizpak, eta zerbait egin beharra zutela erabaki zuten. “Bagenuen beste zereginik, nik beste ikasketa batzuk nituen, ahizpa ume txikiekin zegoen... baina zerbait egin beharra genuen”, dio. Fraisoro eskolan izena eman eta lehen sektorean profesionalizatzeko apustua egin zuten biek 2011n.

INBERTSIO HANDIETATIK ESKAPU

Lehen sektoreari lotutako proiektu jakinak martxan jartzeak inbertsio handia eskatzen zien andoaindarrei, eta sektorean nagusi zen egoera ezegonkorrekin, ez zuten horretarako segurtasun handiegirik sumatzen. “Etengabe entzuten genituen ixten ari ziren ukuiluen eta esplotazioen berriak, eta horregatik, erabaki genuen inbertsio handiegirik eskatzen ez zuen zerbaitetan hastea”, azaldu du Arsuagak. Barazkigintzarako hautua egin zuten; ahizpak, gainera, bazuen aurretik esperientzia barazkien salmentan, eta hori ere lagungarri izan zitekeela pentsatu zuten.

Fraisoroko ikastaroa egiten ari zirela, ekoizle eta kontsumitzaileen topagune batean hartu zuten parte ekoizleek, eta bertan Andoaingo talde bat ekoizle bila zebilela jakin zuten. “Haiek ekoizleak nahi zituzten, eta guk, berriz, kontsumo



taldea bilatzen genuen. Horrelaxe hasi ginen, baratzean oraindik ezer gutxi genuela!”, gogoratzen du. Geroztik, aste-roko saskiak egiten dituzte bi ahizpek, eta herriko bi dendetan, haurtzaindegian –Ekolapiko proiektuaren bidez– eta Andoaingo eta Donostiako bi kontsumo taldetan banatzen dituzte. Eredu ekologikoan ari dira, haiek dioten bezala, txikitatik etxean ikusi dutena delako eta kalitatezko produktuak sortu nahi dituztelako.

AURTENGO BERRIKUNTZA,
UDALEKUAK

Barazki ekoizpenari beste jarduera bat gehitu diote aurtengo udan. “Proiektuari ekin genionetik genuen ideia buruan, baina horrek ere inbertsioa eskatzen

zuen, eta beraz, erabaki genuen pixkanaka hastea, eta behin oinarri sendo bat izanda, pauso gehiago ematea”. Bada, hamar urteren ondoren, aurtengoan ekin diote udalekuen proiektuari: haurren hiru talde txiki izan dituzte udan baserrian eta baratzean. “Oso polita da umeekin baratzea nola egiten den ikustea, gauza asko landu daitezke haiekin baserrian”, dio ekoizleak.

Haurrek naturarekin harreman zuzena izateaz gain, bertan landutako jarduerekin abereen bizitzan, baratzean, eta jakien jatorrian sakontzen dute, beti ingurumenaren zaintzan eta errespetuan oinarrituta. Lehen udalekuen balorazio oso positiboa egin dute ahizpek, eta zalantzarik gabe, datorren urtean errepikatuko dutela diote. ●



Ametza eta eldarnioa

PERU IPARRAGIRRE 📷 JORGE FUENBUENA

70. Zinemaldiko irabazleen gainean itxi zen oihala joan den larunbat gauean, eta horrekin amaitu zen, beste urtebetez, jaialdia. Zazpi hamarkada bete ditu aurtien Donostiako Zinemaldiak, eta berezia behar zuen izan okasioak. Zinemaldiaren historiari garrantzia berezia eman diote aldi honetan, Tabakaleran erakusketa jarri dute, eta filmen aurretik jarri duten karetan ere jaialdiaren historiako argazkiak erakutsi dituzte. Artxibo horri leku berezia egin zioten ere sari-emate ekitaldian.

Urteurrenarekin batera heldu den berezitasuna, hala ere, atzera normaltasunera itzuli izana da. Normaltasuna: aretoetan musukorik ez, berriz ere sarrrerak hartzeko ilarak –nahiz eta aurtengoan ilara asko birtualak izan diren–, Belodromoko saioak, jende gehiago, izar

gehiago, baina oraindik pandemia aurreko egoerara itzulera erabatekoa ez da izan; izango ote da sekula?

Sail Ofizialari dagokionez, aurtengoan ere askotarikoak izan dira lehia-tu diren filmak. *Modelo 77* filmak hasi zuen festibala eta Sail Ofiziala, maila nahiko altu utziz, eta hortik aurrera gorabeheratsua izan da Zinemaldian garrantzia gehien ematen zaion saila. Film gogoangarriak utzi ditu, hala ere. Horietako bat izan da Urrezko Maskorra jaso duen *Los reyes del mundo* (Munduko erregeak). Laura Morak zuzendutako filmak elkarren konpainia besterik ez duten Kolonbiako bost mutilen istorioa kontatzen du: hiritik eta miseriatik atera eta lurralde propio baten bilaketa. Egoeraren laztasuna eta irudi onirikoen edertasuna naturaltasunez elkartzen dira Moraren filmean.

Lehen (eta lehenengotariko) filmak eta aktore gazteak saritu ditu batez ere epaimahaiak, izen ezagunagoak kanpoan utziz. Interpretazio protagonista onenaren saria eraman dute, ex aequo, Carla Quilez-ek ama nerabeei buruzko *La maternal* filmeko lanagatik eta Paul Kircher-ek *Le Lycéen* filmagatik.

Haurtzarora eta nerabezarora behin eta berriz agertu dira Sail Ofizialeko filmetan, amatasunaren eta doluaren gaiekin batera. Gazteen eta ez hain gazteen asmoak eta ametsak eta bizi dutenaren errealtatearen arteko talkak elikatu ditu ikusitako film asko. Ametsak, eldarnioak, esperantza eta erabakiak, ez dago besterik. Zinemak badu, oro har, onirikotik asko, munduari begiratzeko dugun moduari bueltak emateko tresna aparta da, eta aurtengoan ere zinema egiteko modu ugari egin dute topo Zinemaldian. ●



70. ZINEMALDIKO PALMARESA

Urrezko Maskorra:

Los reyes del mundo (Laura Mora)

Epaimahaiaren sari berezia:

Runner (Marian Mathias)

Zuzendari onena:

Genki Kawamura
(*A hundred flowers*)

Interpretazio protagonista onena (ex aequo):

Carla Quilez (*La maternal*) eta
Paul Kircher (*Le lycéen*)

Taldeko interpretazio onena:

Renata Lerman (*El suplente*)

Gidoi onena:

Dong Yun Zhou eta Wang Chao
(*A woman*)

Argazkigintza onena:

Manuel Abramovich
(*Pornomelancolía*)

Euskal zinemaren Irizar Saria:

Suro (Mikel Gurrea)

Arnasarik gabe

 IXONE SANTAMARIA

Cary Grant bezala *North by Northwest*-eko errepide idorrean, Jean-Paul Belmondoren antzera *À bout de souffle*-ren amaierako eszenan eta, batez ere, *Mauvais sang*-eko Denis Lavant protagonista bezala dantza neurotikoan arrera eginez. Hala ibili naiz ni egunotan, zoro moduan korrika: areto batetik bestera, kronika batetik hurrengora. Maratoitik asko du Zinemaldiak.

Bederatzi egunez, zentroko kale eta taberna guztiak ezezagunez bete dira lasterketa frenetiko honetan, zeinean askotan zaila baita une batez gelditu eta arnasa hartzea. Ariketa aerobikoa izan da hau, dudarik gabe, zinemazaletasuna eta horren gainean eraikitzen den ponperia sostengatzeko lan egin duten guztiontzat. Antolakuntza, azpiegiturak, prentsa, aretoen sarrera kudeaketa... Etenaldirik ez guretzat.

Urtero, zalaparta handiz iragarri ohi da aurten hirurogeita hamar urte bete dituen ekitaldiaren hasiera. Apurka-apurka

eraikiz doan ekosistema bitxiaren lekuko bihurtzen dira aldiro donostiarrak: tindatutako leihodun auto ofizialen agerpena, akreditatiodun izakien biderkatzea eta zenbait kaleren tapizatzea. Zoramen hutsa da Zinemaldia, turistifikazio basatiari atea ireki eta *ars gratia artis* krudelaren aitzakiapean hiri oso bat salmentan jartzen laguntzen duen heinean. Aurpegi atseginagoa ere badu, noski. Aretoetan topatu eta berotasunez elkar agurtzen duten aspaldiko lagunena, adibidez. Hirikoak ez garenontzat ere, ez dira gutxi Zinemaldiaren gertutasunaren zantzuak. Izan ere, oihala lehen aldiz ireki baino bi aste lehenago, dagoeneko, ezin zaio entzungor egin film, gonbidatu edo iruzkinen batek sortutako iskanbila zilegiari.

Azkenean, hasiera-lerrotik ikus ezin genezakeen helmugara iritsi gara eta, urtero legez, heldu da ere podiuma ezagutzera emateko unea. Etxera bidean ikusi dut itxiera gala eta jabetu naiz sarituak izan diren filmetatik bat bere ere ez daldala ikusi. Akaso egia da erabiltzen ari

naizen metafora eta, korrikaren korrikaz, punteria ere ahaztu egin dut egunotan.

Amaitu aurretik, aipamen berezia egin nahiko nioke, niretzat, aurtengo edizio-ko onena izan den *Trenque Lauquen* argentinarrari. Maratoitik asko du ere film honek, lau ordu eta hogeita minutu irauten baitu. Handia da hitzaren zentzu guztietan Laura Citarellak zuzendutakoa. Lehenengo ataleko misterio xalo maitagarritik, bigarren ataleko fantasia kitzikagarri girora egiten duen bidean, eguneroko xehe-tasunen eta ezkutuan dagoenaren edertasuna goraiatzan du filmak maisuki. Nire ondoan eserita zegoen emakumearentzat ez bezala, zeinak siesta galanta egin duen lehenengo atalean eta bigarrenerako ez den itzuli, begiak pantailatik aldentzea oso zaila egin zait lau orduetan.

Korrikaldia eta geroko saria izan da *Trenque Lauquen*, Zinemaldiari amaiera emateko modurik gozoena. Hala bada, aurtengoz, heldu da bederatzi egunetan lehen aldiz arnasa hartu eta Zinemaldia agurtzeko unea. Orain bai, itxi da oihala. ●





LIBURUA

Barru eta kanpo



LANDURA

JOSE LUIS OTAMENDI

SUSA, 2022

MADDI GALDOS ARETA

Egunak laburtzen ari dira nabarmen, ihintza gailentzen ari da goizetan eta aurki lurruna ahotik darigula bildu beharko dugu jertse eta bufanda artera. Uda amaiera gozoa izan dugu, halere, euskal literaturazaleok: bestetzuen artean heldu zaigu apalategietara Jose Luis Otamendiren (Azpeitia, 1959) azken poema-liburua. *Landura* (Susa, 2022) izenpean aurkeztu du azpeitiarrak bere ibilbideko bederatzigarren poema-bilduma, 47 olerkiz osatua dena.


Orain arte ere ibilia da Otamendi poemotan proposatzen dizkigun xendretan: giro soziopolitikoarekiko eta, oro har, jendartearekiko kezkek pisu nabaria dute hitzon nondik norakoetan, besteak beste, justizia eza eta berau estaltzeko hizketak jomuga. “Badagoela diogu baina gero / ez da izaten jakirik denontzat /

nahikoa badela diogu eta gero / ez daukagu denok arnasteko / behar besteko aire hori”. Aipatu kezkek badute, ordea, berezitasunik bilduma honetan, aro aldaketa posible batekiko hausnarketa eta galderak nabarmen baitira bertan. Mundu zaharra eta berria dira hizpide hala, eta, tartean, beste hainbat literatur lanetara ere heldu diren osasun larrialdiaren eta itxialdiaren auziak.

Nabarmenki mundu mailako diren horiekin batera dakarzkigu ni poetikoak, halaber, mundu mailako ere badiren baina sukalde kontutzat hartu ohi ditugunak. Bizitzaren edo egunerokoaren ataka ezberdinek norbera non kokatzen duten hausnartzeari ematen dio bide horrek: akaso hori ere badelako landura, eta bestaldera urrun begiratzeko zailtasunak gertu begiratzera garamatzalako. Barruaren eta kanpoaren zein niaren eta

besteen arteko dikotomiak, hala, auzitan jartzen direla iradoki genezake: behin baino gehiagotan errepikatzen da, besteak beste, norberaren osaketan gainontzekoek duten esanguraren auzia. *Beste bat izateko jarraibideak* poema aipatutakoaren adierazle da, eta bildumak duen beste erdigune batera ere bagaramatza: gizatasuna berreskuratzeko elkartasun deiadarrera. Izan ere, poetak deitoratu egiten du katebegi izan eta humano izateari utzi izana.

Makinak, gauzak, zorion-testak eta azal puskak topa ditzake irakurleak le-rootan, eta guztiak denboraren joan-etorrian murgiltzeko gonbita egiten duela ohartuko da. Kutsu narratiboko poemok badute, hala, bilaketaren antza: odolez zikinduta diren oinpeko harrien azpian udaberri berririk edo harearik bato da? ●



MUSIKA

Viva Verdi!



ANGELA MEADE SOPRANO

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Nahiz eta OLBEren 71. opera denboraldia urriaren 15ean hasiko den Belliniren *I Puritani* obraren emanaldiarekin –denboraldi honetako bost tituluetakoa lehena–, joan den irailaren 24an lehen mailako opera-gauaz gozatzeko aukera izan genuen, Tutto Verdi proiektuari amaiera emanez.

2006an hasi eta aurrean amaitzen den proiektu honek katalogo *verdiarra*-ren 30 titulu programatu ditu, 17 urtez 127 emanaldi eginez. Gainera, musikagilearen alderdi gizatiar, artistiko eta intelektualaren ezagutza murgildu diren jarduerak ugaritu izan ditu. Aipatu dudak bezala, kontzertu honekin proiektu hau ahalik eta ondoen burutu nahi izan dute. Ahots apartak izan ziren, Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Operaren Abesbatzarekin batera benetako festa egin zutenak opera zaleentzat.

Interpretatutako aria-lagina askotarikoa eta interesgarria izan zen,

nahiz eta *La traviata*, *Rigoletto* eta *Otello* bezalako izenburuak faltan bota. Nolanahi ere, Verdiren ekoizpenaren erakusgarri ederra izan zen, eta ondo interpretatua.

Saioa hasteko, *Il trovatore*-ren *Ijitoen Korua* ñabarduraz eta intentsitatez beterik interpretatu zuen Bilboko Operako Abesbatzak, Daniel Orenen zuzendaritza biziarekin.

Jarraian, Daniela Barcellona mezzoa indarrez beterik ere ikusi genuen, *Don Carlo* operaren *O don fatale* arian, irmotasunez eta ohituta gauzkan ahotsakontasunez. Kemen berarekin eta agertokiko jarrera egokiarekin, Barcellonak *Aida*-ren duoetan eta hirukoietan egindako hainbat interpretazio oparitu zizkigun, Amnerisen papera antzeztuz. Bereziki nabarmendu zen *L'abborrita rivale a me sfuggia* arian, edo *La fatal pietra sovra me si chiuse...* izugarrian, Angela Meaderekin batera,

OLBE-k antolatutako Verdi eskaintako errezitaldia. Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Daniel Oren. Bilbao Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Bakarlariak:** Angela Meade (sopranoa), Daniela Barcellona (mezzoa), Sergio Escobar (tenorea), Giovanni Meoni (baritonoa), David Lagares (baxua).

Lekua: Euskalduna Jauregia. **Data:** irailaren 24a.

Aidaren paperean, eta Sergio Escobarrekin, Radamesen rolean.

Angela Meade soprano estatubatuarra izan zen, hain zuzen ere, gaueko izar nagusia. Mugarik ez duela dirudien abeslaria da. Ahots betea du, ondo tinbratua eta homogenea bere luzetabalean. Indar ikaragarria du amorru-uneetan, *Traditor!... Sacerdote! Lo resto a te!* arian bezala, baina *pianissimi* delikatuz liluratzen du unerik mingarrietan, *Qui Radames verrà... O patria mia* pasarteetan bezala. Perfektua.

Sergio Escobar tenoreak eta Giovanni Meoni baritonoak jardun eraginkorrak izan zituzten, baina Meonik une zailen bat izan zuen behar bezala jariatzen ez zen agudoren batean.

Saioa bi numero potenterekin amaitu zen: *Nabucco*-ren *Va pensiero*, ñabarduraz josia, eta *Nazioen Ereserkia*, gogo biziz betea, non Sergio Escobar biribil aritu zen. ●



Buru-belarri, burugogor!

✂ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📺 MIKEL RUIZ PEJENAUTE

Bilatzeak, etengabe bide baten bila abiatzeak, nahi zein espero ez duguna aurkitzea dakar. Artista bat bilaketa gose hori elikatu beharrean dago bere espiritua bizirik mantendu nahi badu. Burugogorkeria handia ere behar du bere ibilerak. Bide berriak bilatu, azalberritu eta bere pertzepzioa zabaldu, hori da artista bat bizirik dagoenaren sintoma. Konformismotik aldentzea, formula ez errepikatzea, azken finean. Gose eta sorkuntza grina izan behar dira bere jardunaren motorrak. Lelo eta ideia honen inguruan osatu du Mikel Ruiz Pejenautek *Buru-belarri, buru eta bihotz. Burugogor!* erakusketa Eremuak programaren barruan eta Zallako kultur etxean dago ikusgai.

Lekua ez da aproposena, egia esan, baina Mikelek burugogorkeriaz lan egin du oztopo fisikoak gainditu eta lau artisten lanarekin erakusketa aurrera ateratzeko. Haietako bat Adrian Rome-

ro bilbotarra da. Ofizioz diseinatzaile grafikoa den gazte honek digitalarekin jolastea du gustuko, irudi eta formekin imajinario berri bat sortzeko. Normaltasun berriko garai ezkor hauetan Adrian beste errealtate bat imajinatzen saiatu da, iragana pusketan apurtu ondoren geratu diren errealtate apurrekin mundu berri bat irudikatzen. Gure zibilizazioak azken 2.000 urteetan gurutze batek markatu duen bidea jarraitu badu, Adrianek elementu berriak proposatzen ditu, sinbolismoz kargatutakoak, gure etorkizun hurbila sor dezagun. Erakutsi dituen obra guztien artean hiru dimentsiotako teklatu batek ematen du arreta: esku baten itxurakoa da eta ezezagunak zaizkigun ikurrez jositako tekletan osatuta dago. Geroa marrazteko formula zaharrak ahaztu behar direla eta tekla berriak sakatu beharra dagoela esan nahi digula dirudi. Proposatzen duen iruditegi berriak jendearengan jakin-mina piztu

'HARRIAK' ERAKUSKETA

NOIZ: Irailak 16 - Urriak 16

NON: Zallako kultur etxea

duela esan genezake, han baitzeuden hiru lagun lurrian jarritako pantaila zahar baten inguruan etorkizunekoak ziren egitura eta irudiekin liluratuta, soilik sute batek sor dezakeen hipnosi egoeran.

Erakusketan parte hartu duen beste artista bat Matxalen Oñate plentziarra da. Tradiziotik habiatzen diren baina bide berriak urratzen dituzten hainbat eskultura aukeratu ditu erakusketarako. Formek zein apaindurek garrantzia handia dute harrian landutako pieza hauek. Indarra darie, baita sentsualitatea ere. Eider Garcia Letek magia ukitu bat eman dio erakusketari, bere oihalarekin espazioa jantziz eta beste dimentsio batera eramanez. Norbaitek naifegia dela pentsa balezake ere magia puntu bat erantsi dio aretoari. Azkenik, Gorka Lazpiurren obrak argi utzi du huts egingako lanek bide berriak aurkitzeko abiapuntuak izan daitezkeela, buru-belarri arituz, burugogorkeria puntu batekin. ●



Hitz gezidunak

IRAKIN EZ DUEN MA- HATS ZUKU ----- ZORIZ		PALAUAR ----- GASTEIZKO MUSIKA TALDEA		DUDARIK GABE	 JOSU SANTESTEBAN	OSTORRATZA ETA HARIAZ LOTU ----- HELBURUA, XEDEA		GUTXIZ ----- PERTSO- NAIAREN ABIZENA		ETENIK EZ DUENA ----- ZELATAN	
KOILARA HANDI ----- NANOTESLA							UGAZTUN ITSU ----- EZEREZ, APURKERIA				
		URREAREN SINBOLOA ----- UMETAN									
ITURBURU ----- TABAKOA GORDETZEKO ZORROA				PINU MOTA ----- ELKARTU, PILATU		FIIJKO BIZTANLE ----- GAINDITU		GOGO BIZIA, IRRIKA ----- HAR			
			LANDARE MOTA, GARO ----- HAIZE-TRES- NA TEKLATU- DUNA						UGARITASUN ATZIZKIA ----- KARTETAN, EZ SEGITU		
HOTZAK ERANGIN- DAKO HANDITU, OSPEL	BARNEA HUTSA DUENA ----- ZALDIAREN ILEA				SEKRETU ----- PERTSO- NAIAREN IZENA						ADORE
							OINAREN AZPIALDEAK ----- SENDO, FINKO				
AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK ----- BITARTEA			NEKAZARI- TZA ORGA ----- AUPA, IEPA!					EMAKU- MEZKO IZENA ----- EUSKO ALDERDI JELTZALEA			
				LEHEN ----- KANPO, LANDA						MEGA ----- ATZIZKI TOPONI- MIKOA	
LAPURTERAZ, DINAT ----- KANPO- TIKAKO						MEATEGI ----- KILOA					
								BERTARATU			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		8						
9			2		3	5	4	8
			7			9	1	
	8		5	3	7			
		6	9		4		8	1
4	3		6				7	5
	2	3		4				7
6	1			7				4
7	9		8	6			2	3

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Buruko ileen multzo.
2. Dolua, garbaia.
3. Lotan gaudenean bizi garen gertaera.
4. Fitsik, deus ez.
5. Zumitzezko ontzi.

EBAZPENAK

1. ADATS
2. DAMUA
3. AMETS
4. TUTIK
5. SASKI

3	2	1	5	6	8	4	7	9	6	7
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8
4	6	8	7	2	5	3	1	9	6	8

5x5:

N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K
N	A	V	O	K	I	T	O	P	N	V	A	N	K

Idoia Tapia

ARTEAREN MUNDUAN



IKASTEN, BETI

“Zirkuak clown-aren zirrikitua ireki zidan, eta zirkuak erakutsi zidan zer den publiko baten aurrean jartzea lehenengo aldiz”. Iruñeko Txantrea auzoko Auzotegi kultur etxe autogestionatuan hasi zen zirku egiten; orduetik artearen munduan ibili da. Musikaria eta aktorea da orain, eta beti ikasteko gogoz dago: “Baxua ikastea gustatuko litzaidake; etxean asko entzun dut aitak baxua jotzen duelako. Gorrotatzera ere iritsi naiz hainbeste entzuteagatik, baina azken aldian arreta ematen dit”.

“Gustatuko litzaidake antzerkia egiteko elkartzea jendea, musika taldeak sortzeko elkartzen den bezala”

Modu batean edo bestean oholztan egon da beti Idoia Tapia (Iruñea, 1998). Antzerkia ikasi zuen Donostian, eta orain arte dramatikoa ikasten ari da Bilbon. Skabidean taldeko abeslaria da, eta Sastakai antzerki taldeko kidea. Azken talde horrekin hilekoaren inguruko antzezlanak dauka esku artean; oraindik ez dauka izenik, baina urte amaieran Iruñean aurkezteko asmoa daukate.

OLAIA L. GARAIALDE JOSU SANTESTEBAN

Zer sentitzen duzu oholztan?

Zirrara modukoa sentitzen dut, lehenengo aldia izango balitz bezala. Skabideanekin kantatzen dudanean ez naiz hain urduri jartzen: oso eroso nagoelako, eta esperientzia gehiago daukadalako. Oholtzan aldaketa bat dago, eta publikoarekin konektatzen dudanean urduritasuna zoriontasun bilakatzen da.

Bietan eroso sentitzen zara?

Antzezpena gehiago ezagutzen ari naizenez haur bat bezala sentitzen naiz. Beste energia bat dauka abesti bat ikasita kantatzeak edo testu bat ikasita antzezteak. Abestiak ere interpretatzen dira, baina musikaren publikoa ez da hain zorrotza egia-ekin.

Oholztaren bi aldeetan zaudenetik zure ikuspegia aldatu da?

Bai, noski. Gainera, horrek batzuetan ez dit uzten gozatzen beste gauza batzuetan jartzen dudalako arreta. Istorioan sartu arren, antzezpenean arreta jartzen dut edo ikusten dut mikrofona erori zaiola, eta larrituta

dagoela. Gehiago konturatzen naiz niri ere gertatzen zaidalako. Sentitzen dut ez nagoela ez publikoan dagoenaren lekuan, ezta oholztan dagoenaren lekuan ere; erdibidean nago.

Sastakai taldea sortu duzu Irati Vélezekin eta hilekoaren inguruko antzezlanak sortzen ari zarete. Horretarako inkesta bat zabaldu duzue; zer-nolako erantzunak jaso dituzue?

Izugarrria izan da erantzun asko eta oso desberdinak jaso ditugulako. Hori zen guk islatu nahi genuena: hilekoa bizitzeko milaka modu dau dela. Gainera, hainbeste erantzun jasotzeak esan nahi du jendeak gaia-ren inguruan hitz egin nahi duela.

Zergatik da punk antzerkia?

Ez daukagu oso argi kontzeptua [barrezka]. Irati eta biok oso punkiak gara: gauzak zeken egin nahi ditugu, baina ondo. Gelakideekin hitz egin dugunean esaten dugu gustatuko litzaiukeela elkartzea antzerkia egiteko jendea, musika taldeak sortzeko elkartzen den bezala. Hama-



"Publikoarekin
konektatzen dudanean
urduritasuna zoriontasun
bilakatzen da".

bost urteko lau gazte oso gaizki jotzen dutenak, baina oso ondo pasatzen dutenak gaztetxeetan jotzen. Egia da beste publiko bat dela, baina esentzia hori antzerkira eramatea interesgarria da. Umoretik egiten dugu antzerkia, oso baliabide urriekin eta itxi gabeko zauriari gatza botatzen diogu. Kontzeptu horiek punkaren baitan sartzen dira.

Dirulaguntza bat jaso duzue, eta espazio bat eman zizueten entseguak egiteko eta aurkezteko.

Eztena jaialdiko diru kopurua oso xumea zen, baina ez genuen asko behar. Askotan ez dugu sortzen espazio horiek falta zaizkigulako antzerkiaren munduan. Hala ere, geroz eta espazio gehiago dago. Irakasleek kontatzen digute orain dela hamarkada batzuk tabernetan entseatzuten zutela, baina dagoeneko ez da egiten. Espazio horiek falta bazaizkigu non egingo dugu?

Zure arteak zenbat dauka aktibismotik? Eta zure aktibismoak zenbat dauka artetik?

Gazte, euskaldun, nafar eta emakume naizenez gauza horiek taularatuko di-

tut. Kanporako aldarrikapenak bakarrik ateratzen dira, eta barrurako militantzia besteei laguntzearekin lotzen dut. Adibidez, Antso azkarraren emanaldira laguntzera noa nahi dudalako, euskaltzalea eta folklorikoa delako, eta Iruñean denez hor egon behar naizelako. Hortaz, nire arteak aktibismoa dauka, eta nire aktibismoak artea.

Nola ikusten duzu emakumeen egoera oholztan?

Geroz eta emakume gehiago igotzen gara, baina oholztara igotzen garenean ardura handiagoa da. Normalean gizonak egiten dutena egiten dugunez jomugan gaude. Ikusi nahi dute ea gizon horien mailara iristen garen. Igo behar gara defendatzera ondo egiten dugula. Zergatik ezin dugu egin kaskar edo gaizki?

Batez ere gizonen osatuta dago Skabidean musika taldea; zure espazioa aldarrikatzeko beharra sentitzen duzu?

Batzuetan gustatuko litzaidake Lorena [Aisa] eta biok ez bagina abeslariak, normalean emakumeak oholztza gai-

nean abeslariak direlako. Sentitzen dut gehiago gaudela jopuntuan taldearen aurpegia garelako. Gustatuko litzaidake bateria edo teklatura joko bagenu. Hala ere, uste dut zortzi mutil eta bi neska egoteak asko azpimarratzen duela hor gaudela.

Zer dago horren atzean?

Musika talde baten formazioan abeslaria da irudia, eta hori oso lotuta dago gure gorputzen objektibazioarekin eta sexualizazioarekin. Normalean zentzu guztietan tresnak hartzen dituztenak gizonak dira. Ikusten duzu neska bat bateria jotzen, eta feminitatea kentzen zaio, eta abeslaria izateak ez.

Euskaraz eta Euskal Herrian sortu nahi duzu. Uste duzu kanpora joateko joera duela jendeak?

Bai, batez ere Madrilera doa jendea, baina hemen ere ikasteko tokiak badaude. Hemen lan egin nahi dut, eta jakin nahi dut zer den euskal antzerkia. Euskal antzerkian dagoen jendea ezagutu nahi dut, eta kanpora banoa, hori galduko dut. Hemen dagoena sustatu eta handitu nahi dut. ●

Zu eta biok bezalako mutil bat

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ba kontua da Roger Federerrek –bai, bera da: beti nahasten dut Joaquim Phoenix aktorearekin, baina oraingoan ez dago dudarik– tenisa utziko duela. Azken partidua jokatu zuen joan den astean, binakako bat, eta okasiorako ondoan nahi izan zuen Rafa Nadal, biak sarearen alde berean azken 20 urteak aurrez aurre pasa ostean, urdaiazpikoen tamainako bizeps horiekin elkarri *drive* hilgarriak jaurtitzen. Antza denez edozein Grand Slametako finaleran erraketak kea zeriela uzten zituzten arren, armarik gabe daudenean oso ondo konpontzen dira.

Hain ondo, ezen munduari buelta batzuk eman dizkion argazkia egin baitzieten Londresko partiduen ondoren: oso emozionatuta agertzen dira, malkotan, elkarri eskua emanda. Edozeinek pentsatuko luke Bertsolari Txapelketa Nagusiko kartzelakoak –ui, barka, orain ganbarakoak dira, ezta?– entzuten ari direla.

Eta niri primeran iruditu zait, egia esan. Bejondeiela. Baina –beti erori behar bainaren batek– ez zait gauza bera gertatzen argazkiaren kontura sortu diren erreakzio zenbaitekin. “Ez dakit jabetzen garen irudi hauek duten garrantziaz zenbait estereotipo puskatzeko eta terriblerik toxikoa den maskulinitate bat deseraikitzeke. Batez ere gazteen artean. Brabo biengatik”, idatzi du Twitterren Gabriel Rufián ERCKo diputatu-influencerrak –edo influencer-diputatuak, gauzen ordenak ez baitu funtsa aldatzen–.

“Batez ere gazteen artean”, beraz. Auzoko makarraren papera jokatzeko espezializatu zen politikariaren txioa irakurri nuenean, oraindik ez zitzaidan pasa egun pare bat lehenago izandako bilera baten ajea, zeinean nire adina ia bikoizten zuten zenbait gizasemek gizonkeria erradioaktiboaren erakustaldi




bat egina zidaten. Eta bizipen horrek, Rufiánek dioena dioela, pentsarazten dit problema honen distribuzio generazionala nahiko orekatuta dagoela. Tristeki orekatuta.

Manuel Jabois idazleak asuntiaz *El País*-en idatzitakoaren pasarte batek ere kurrinka egin dit: “Eta horrela, modurik natural eta sinpleenean, keinu politiko batek sakontasun handiena hartzen duen eran, eman zuten bi tenislarik, pistaren barruan 20 urtez kolpe-errezitaldi bat egiten aritu direnak, beste kolpe bat, birrintzailea”. Esan nahi den horren eta esateko erabiltzen diren hitzen arteko harremana ez baita inportantzia gutxiko gauza, nahiko deigarria da bi gizonen arteko keinu goxo eta sentikor bat “kolpe” eta “birrintzaile” bezalako arropekin janztea. Erabaki estilistiko horrek daukan azpitestuaz pentsarazten du: “Ei, pixka bat leun jartzea ondo, baina maritxukeriarik gabe”.

Total, zentzumen araknidoa aler-tan jartzen zaidala mota honetako “maskulinitate berrien” ospakizun *mainstream* geroz eta ugariagoekin, uste dudalako gai honek zarata baino gehiago eskatzen duela introspektzioa; eta ospakizuna baino gehiago, auto-kritika. Nahiko ados baldin bazaude, igual interesatuko zaizu Ivan Jablonkak (oraingoz) argitaratu duen azken liburua, *Un garçon comme vous et moi* (Zu eta biok bezalako mutil bat; Seuil, 2021): “genero-autobiografia” gisa aurkezten du eta Alfa klasekoa izan ez den ar baten bizipenez osatua dago. Besteak beste *mutil-mota* hori ez iza-tegatik jasandako jazarpena kontatzen duen arren, ez dio uko egiten bere buruarentzat konposatu duen “beste” gizotasuna diseinatzeari ere. Eta uste denaren kontrara, batzuetan gehiago balio du liburu batek mila argazkik baino. ●

Denon ongizatea hobetzeko **ticketa. BAI.**



**TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratua
eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.**

gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro

LURRA HERRIARI DEIKA



Euskal Herriko agroekologia mugimendua eta ARGIAren elkarlana.
Diseinu berriak azokan salgai. %100 kotoi organikoz egindako kamisetak.

Prezioa **19,50 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45